2.– En la matrícula existen asignaturas optativas hasta el límite de asignaturas y plazas, por cada colectivo, que se aprueben para cada año académico en la oferta docente; por lo que no debe confundirse el número de asignaturas optativas que figuren en los planes de estudios, con la oferta de dichas asignaturas para cada año académico.

3.– La elección de las asignaturas optativas se efectúa de acuerdo con el orden de matrícula que a cada estudiante le haya correspondido al aplicar el criterio de ordenación establecido en el artículo 31.

4.– Los centros deberán garantizar a cada estudiante plazas en asignaturas optativas de forma que pueda matricularse de los créditos que figuren en su plan de estudios para su curso y en un número que posibilite la elección entre las disponibles en su turno de automatrícula.

Asignaturas complementarias o exceso de créditos.

*Artículo 23.–* Cada estudiante, pese a haber realizado todos los créditos de la titulación, podrá matricu-

kularako epea amaitu eta gero, hautazko irakasgaietan eta aukera askekoetan matrikulatzeko, 21. artikuluan zehaztutako mugaren barruan, Dekanotzak/Zuzendaritzak aurretik baimena emanda, eta titulua jasotzeko eskaria egin aurretik.

Eskolarik gabeko irakasgaiak.

*24. artikulua.*– Desagertzeko bidean dauden ikasketa planetako irakasgaiak honakoen arabera gestionatuko dira:

a) Desagertzeko bidean diren ikasketa planetako ikasleak gainditzeke dauzkaten eta desagertzeko azken urtean dauden mailetako irakasgai guztietan matrikulatu behar dira.

b) Irakasgai horien deialdiak ekainean eta irailean izango dira. Otsaileko deialdia erabili gura duten ikasleek hala adierazi beharko dute ikastegietako idazkaritzetan, urtarrilaren 11tik 18ra. Otsaileko deialdia erabili, baina gainditu ez duten ikasleek ikastegiko idazkaritzan esan beharko dute, maiatzean, zein deialdi erabiliko duten: ekainekoa ala irailekoa. Ikasleak ezer esaten ez badu, ikasturte horretako bigarren deialdi bezala irailekoa erabiliko duela ulertuko da.

c) Irakasgai horien kalifikazio orriak eta aktak beste irakasgai guztietakoak lortzeko prozedura berberaren bidez eskuratuko dira.

d) Irakasgai horien azterketa egunak ikastegi bakoitzak jarriko ditu deialdi bakoitzerako, eskolak dauzkaten irakasgaietarako prozedura berbera erabiliz.

e) Azterketak Ikastegiko Batzarrak izendatutako epaimahaiek epaituko dituzte, irakasgaia ematen zuten sailen iritzia entzunda. Epaimahaiok sail horietako hiruna irakasle numerariok osatuko dituzte, ahal bada irakasgaiari zegokion jakintza arlokoak. Bosgarren edo seigarren deialdiko ikasleentzako epaimahaia izendatuta balego (irakaskuntzaren plangintza eta ikasleen ebaluaziorako arauei jarraiki), epaimahai horrexek berak kalifikatuko ditu desagertuta dauden irakasgai horien azterketak, ikaslea edozein deialditan egonda ere.

Behin betiko matrikula.

*25. artikulua.*– Matrikula eskariak behin-behinekoz onartuko dira. Matrikula behin betikoa izango da ikasleak eskatutako titulazioa ikasteko behar diren baldintzak betetzen dituela egiaztatu ondoren. Baldintzak egiaztatzeko epea LAU hilabetekoa izango da, uztailean egindako matrikuletarako eta HIRU hilabetekoa, irailean eta urrian egiten direnetarako; epeok matrikula egiten denetik hasiko dira kontatzen. Epe horiek igarota (4 edo 3 hilabete) ikastegiak (dekanoak/zuzenda-

larse, en un plazo posterior a la automatrícula de asignaturas optativas y de Libre Elección, dentro del límite señalado en el artículo 21, previa autorización del Decanato/Dirección y siempre antes de haber tramitado la solicitud del título.

Asignaturas sin docencia.

*Artículo 24.*– Las asignaturas de los planes de estudios en proceso de extinción se gestionarán de acuerdo al siguiente procedimiento:

a) El alumnado que se encuentre realizando estudios en dichos planes debe matricularse de todas las asignaturas que tenga pendientes y pertenezcan a los cursos que se encuentran en el último año de extinción.

b) Las convocatorias de dichas asignaturas serán la de junio y septiembre. El alumnado que desee utilizar la convocatoria de febrero deberá comunicarlo en las Secretarías de los Centros del 11 al 18 de enero. Cada estudiante que haya utilizado la convocatoria de febrero sin superarla, deberá notificar en la Secretaría del Centro, en el mes de mayo, qué convocatoria desea utilizar: junio o septiembre. Si no lo indicara, se entenderá que va a utilizar la convocatoria de septiembre como segunda convocatoria de ese curso académico.

c) Las hojas de calificación y las actas de estas asignaturas se obtendrán por el mismo procedimiento que para el resto de las asignaturas.

d) Las fechas de los exámenes de estas asignaturas serán establecidas, para cada una de las convocatorias, por los Centros utilizando el mismo procedimiento que para las asignaturas con docencia.

e) Los exámenes serán calificados por tribunales nombrados por la Junta de Centro, oído el departamento o departamentos que tenían asignada la docencia de esta asignatura. Estos tribunales estarán constituidos por tres miembros del profesorado permanente de este/estos departamentos, prioritariamente del área de conocimiento a la que estaba adscrita la asignatura. En el caso de que, a tenor de lo establecido en las previsiones sobre planificación docente y evaluación del alumnado, estuviera nombrado el tribunal para estudiantes de 5.ª o 6.ª convocatoria, este tribunal calificará los exámenes de estas asignaturas extinguidas, con independencia de la convocatoria del alumno o de la alumna.

Matrícula efectiva.

*Artículo 25.*– Las solicitudes de matrícula presentadas serán admitidas con carácter provisional. Sólo serán efectivas tras la verificación del cumplimiento de los requisitos necesarios para cursar la titulación solicitada. Verificación que se realizará en el plazo de cuatro meses para las matrículas realizadas en julio y de tres meses para las matrículas de septiembre y octubre, a partir de la realización de la matrícula. Esta se considerará aceptada si transcurrido el plazo de los 4 o 3 me-

riak) ez badu horren kontrako erabakirik hartzen, matrikula onartutzat emango da. Erabaki horren kontra gorako errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio errektoreari.

Irakasleen matrikula.

***26. artikulua.***– Unibertsitateko irakasleen araubideari buruzko apirilaren 30eko 898/1985 Errege Dekretuko 12. artikuluak hauxe dio: «unibertsitateko irakasle guztiek debekatuta izango dute eurak irakasle dauden ikastegietan ikasle gisa matrikulatzea.

Hala ere, diplomatu titulua bakarrik daukaten unibertsitate-eskoletako irakasle titularrak lizentziaturako mailetan matrikulatu ahal izango dira, edo, lizentziatuak izanez gero, doktoregoko ikastaroetan. Errektoreak beren-beregi eman beharko du horretarako baimena».

Behin-behineko matrikula.

***27. artikulua.***– Beste unibertsitate batean onartua izateko zain dagoela agiri bidez frogatzen duen ikasleak behin-behineko matrikula egin ahal izango du UPV/EHUn —betiere lehenengoz sartzen bada— eta prezio publikoak behin betiko matrikula egitean ordainduko ditu. Hori guztia, unibertsitateko ikastegietan sartzeari buruzko 69/2000 EDko 20.6. artikuluari jarraiki.

Matrikula bakarra.

***28. artikulua.***– 2007-2008 ikasturterako matrikula bakarra izango da bi lauhilekoetarako. 39. artikuluan aipatzen den bigarren matrikulaldia baino ezin izango da ireki, eta hala dagokionean.

Ikasleen banaketa nahitaezko irakasgaietako taldeetan.

***29. artikulua.***– 1.– Nahitaezko irakasgaietako taldeetan ikasleak hurrenkera alfabetikoaren arabera, ausaz edo ikaslearen nahiari jarraituz banatuko dira.

2.– Aukeratzen den irizpidea Ikastegiko Batzarrak onartu beharko du matrikularako epea hasi aurretik.

3.– Banaketa ikaslearen nahiaren arabera egitea erabakiz gero, ikasleek matrikula egitean aukeratu beharko dute taldea, une horretan dituzten aukeren artean. Matrikula hurrenkeraren arabera ikasleari izendatu zaizkion matrikula egun eta orduaren araberakoak izango dira aukerak.

4.– Maila edo irakasgai batean matrikulatu ondoren, taldez aldatzeko eskaera egin ahal izango du ikasleak irakasgai konkretu batzuetarako, hizkuntza dela-eta.

ses, según los casos, no se resuelva en contra por parte del Decanato o Dirección del Centro, resolución que resultará susceptible de recurso de alzada ante el Rector, Rectora.

Matrícula del profesorado.

***Artículo 26.***– De acuerdo con lo establecido en el artículo 12 del Real Decreto 898/1985, de 30 de abril, sobre régimen del profesorado universitario «todo profesor/a universitario tendrá prohibido matricularse como estudiante en cualquiera de los Centros donde imparta docencia.

Ello no obstante, los profesores, profesoras titulares de Escuelas Universitarias, previa autorización expresa del Rector, Rectora podrán matricularse en los cursos de licenciatura cuando posean únicamente el título de diplomado/a, o en los programas de doctorado quienes sean licenciados/as».

Matrícula provisional.

***Artículo 27.***– Según lo establecido en el artículo 20.6 del RD 69/2000 sobre ingreso en los Centros Universitarios, cada estudiante de nuevo ingreso que justifique documentalmente estar pendiente de admisión en otra universidad, podrá realizar en la UPV/EHU una matrícula provisional, cuyos precios públicos abonará en el momento de su formalización definitiva.

Matrícula única.

***Artículo 28.***– La matrícula para el curso 2007-2008 será única para los dos cuatrimestres. Sólo se podrá realizar, en su caso, la ampliación señalada en el artículo 39.

Asignación de estudiantes a los grupos de docencia en asignaturas obligatorias.

***Artículo 29.***– 1.– El alumnado matriculado podrá ser asignado a los grupos de docencia de las asignaturas obligatorias con criterio alfabético, aleatorio o a elección propia.

2.– El criterio elegido deberá ser aprobado por Junta de Centro antes del comienzo de la matrícula.

3.– En el caso de asignación por elección propia, cada estudiante elegirá de entre los grupos abiertos existentes en el momento de su matrícula, que dependerá de la fecha y hora de matrícula que se le asigne en función de la ordenación realizada.

4.– Una vez realizada la matrícula en un curso/grupo concreto, cada estudiante podrá solicitar la modificación de grupo en asignaturas sueltas por motivo del idioma.

5.– Ikasle guztiek aukera berberak edukiko dituzte aukera askeko irakasgaietan matrikulatzerakoan.

Matrikula epeak.

1. mailako ikasleak:

*30. artikulua.*– 1. mailakoak honako epe hauen arabera egingo dute matrikula:

– Uztailaren 16tik 24ra: Hautaprobak eta Lanbide Heziketa ohiko deialdian gainditu duten ikasleek eta 25 urtetik gorakoek.

– Irailaren 12tik 14ra: Hautaprobak eta Lanbide Heziketa ezohiko deialdian gainditu dutenak; unibertsitateko titulatuak, atzerritarrak eta 2. ziklora sartu nahi dutenak, denak ere ohiko deialdikoak.

– Urriaren 9tik 10era: unibertsitate tituludunak, ikasle atzerritarrak, Hautaprobak beste unibertsitate batzuetan egin dituzten ikasleak, 2. ziklora sartu nahi dutenak, denak ere ezohiko deialdikoak. Ezohiko bezala izena eman duten gainerako ikasle guztiak, oraindik ere plazak geratzen diren ikastegietarako.

Lehenengo mailatik gorako ikasleak.

*31. artikulua.*– 1.– Matrikula irailaren 17tik 28ra egingo da, bi egunok barne. Ikasleak edo haren ordezkari akreditatuak matrikula egingo ez balu adierazitako egun eta orduan, espedientearen arabera daukan lehentasuna galduko luke eta ikastegiko idazkaritzara joan beharko luke, matrikula egiteko beste txanda bat eskatzera.

2.– Automatrikularen sistema erabiliko da. Ikasleak hautazko irakasgaiak eta aukera askekoak aukeratuko ditu, matrikula egiteko egun eta orduan eskaintzen zaizkionen artetik, eta ikastegiak onartutakoa kontuan hartuta.

3.– Lehenengo mailatik gorako ikasleek eta lehen mailako errepikatzaileek etxean jasoko dute matrikula egiteko hitzorduaren gutuna. Bertan adieraziko zaie zein egun eta ordutan joan behar duten matrikula egitera.

Jakinarazpena aurreko puntuan adierazitako eran ere egingo den arren, jakinarazpen ofiziala Interneten egingo da. Hitzorduen zerrenda ikastegietan, Gipuzkoako errektoreordetzan, Arabakoan eta Ikasleen Atalean (Leioa) argitaratuko da irailaren 6an.

4.– Ikasle bakoitzak matrikula zein egun eta ordutan egin behar duen zehazteko, irailaren 4an unibertsitateak ikasle guztiak ordenatuko ditu espedientean data horretan azaltzen diren kalifikazioetan oinarrituta. Matrikula-zenbaki bana emango zaie, eta altuenetik txikienera izango da matrikula-hurrenkera. Ondoko formula hau erabiliko da ikasleak ordenatzeko:

5.– Todo el alumnado tendrá las mismas oportunidades a la hora de matricularse de asignaturas de Libre Elección.

Plazos de matrícula.

Estudiantes de 1.º:

*Artículo 30.*– El alumnado de 1.º se matriculará, según le corresponda, en los siguientes plazos:

Del 16 al 24 de julio, para estudiantes de Selectividad y de Formación Profesional de la convocatoria ordinaria y para Mayores de 25 años.

Del 12 al 14 de septiembre, para estudiantes de Selectividad y de Formación Profesional de la convocatoria extraordinaria y para estudiantes con titulación universitaria, alumnado extranjero y accesos a los 2.º ciclos de la convocatoria ordinaria.

Del 9 al 10 de octubre, para estudiantes con titulación universitaria, alumnado extranjero, alumnado que haya realizado la selectividad en otras universidades, accesos a los 2.º ciclos de la convocatoria extraordinaria y para el resto de estudiantes de preinscripción extraordinaria para centros con plazas.

Estudiantes de cursos superiores a primero.

*Artículo 31.*– 1.– La matrícula se realizará entre los días 17 y 28 de septiembre, ambos inclusive. El alumnado, o en su caso sus representantes con la correspondiente acreditación, que no acuda a realizar la matrícula el día y hora que le corresponda perderá la prioridad que pudiera tener en base a su expediente y tendrá que personarse en la Secretaría del Centro para solicitar un nuevo turno en que realizar la matrícula.

2.– La matrícula se realizará en forma de automatrícula, en la que cada estudiante podrá elegir asignaturas optativas y de libre elección de entre las que se ofrezcan el día y hora que le corresponda y de acuerdo con lo aprobado por el Centro.

3.– El alumnado de cursos superiores a primero y quienes han repetido primero, en su caso, recibirán en su domicilio un sobre de citación en el que se les indicará el día y hora en que deben acudir a matricularse.

En todo caso, la notificación oficial del día y hora para realizar la matrícula será la que se comunique a través de Internet, que será la que conste en la lista que se exponga en los Centros, en el Vicerrectorado de Gipuzkoa, en el Vicerrectorado de Álava y en la Sección de alumnado (Leioa), el día 6 de septiembre.

4.– Para asignarles el día y hora, la Universidad, el día 4 de septiembre, ordenará al alumnado, en base a las calificaciones que consten en su expediente en dicha fecha, teniendo preferencia quienes hayan obtenido orden de matrícula mayor. Para realizar la ordenación se utilizará la siguiente fórmula:

Matrikula-ordena MO = A-ren % 25 + M-ren % 25 + F-ren % 50, non:

A = gainditutako irakasgaien kalifikazioa baloratzen duen koefizientea den (ikasitako espedientearen batez bestekoa).

M = matrikula egiten duten urtean izandako etekin akademikoa neurtzen duen faktorea den (ordenatze-egunerako ikasturte honetan gainditutako kredituak/ikasturte honetan matrikulatutako kredituak).

F = titulazioa bukatzeko gradua definitzen duen (ordenatze-egunerako gainditu dituen kredituak/titulazioko kreditu guztiak).

5.– Matrikula-ordena plan zaharrerako eman zaion arren plan berrira egokitu nahi duen ikasleak, ikastegiko Idazkaritzara joan beharko du izendatu zaion egunean, egokitzapena eskatzera eta automatrikula egitera.

2006-2007 ikasturtean matrikulatuta egon ez diren ikasleak.

*32. artikulua.–* 2006-2007 ikasturtean matrikularik egin ez zuten ikasleek, eta leku aldaketaren bidez onartuak izan direnek, ez dute jasoko etxean hitzordua emateko gutuna. Beraz, 2007ko urriaren 2tik 11ra bitartean pasatu beharko dute ikastegiko Idazkaritzatik, matrikula egiteko.

Matrikula egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioa.

*33. artikulua.–* 1.– Lehenengo mailan lehendabiziko aldiz matrikulatzen diren ikasleek, edozein izanda ere titulazioa, honako agiriak aurkeztu behar dituzte:

a) Datu estatistiko eta ekonomikoen inprimakia.

b) NANaren edo pasaportearen fotokopia.

c) Bi argazki, atzealdean izen-deiturak idatzirik.

d) Matrikularen ordainketa helbideratzeko inprimakia.

e) Diputazioak emandako familia ugariaren tituluaren fotokopia erkatua edo fotokopia eta jatorrizko agiria edo matrikularen prezioa murrizteko edo ordaintzetik salbuesteko eskubidea ematen duen beste edozein agiri.

f) Unibertsitateko txartela eskatzeko orria. 2006-2007 ikasturtean unibertsitatean matrikulatuta egon diren ikasleek ez dute aurkeztu behar.

g) Ikasleak beka eskatu badu, eskari horren gordekinaren fotokopia.

h) Gizarte Segurantzan alta emanda egotearen agiria, eskola asegururako.

2.– Aurrekoaz gain, erabilitako sarbidearen arabera, ikasle bakoitzak honako dokumentuok aurkeztu beharko ditu:

Orden de matrícula OM = 25%A + 25%M + 50%F, donde:

A = Con este coeficiente se valoran las calificaciones de las asignaturas superadas (media del expediente cursado).

M = Este factor mide el rendimiento académico en el año de matrícula (créditos superados en este curso a la fecha de ordenación/créditos matriculados en este curso).

F = Define el grado para finalizar la titulación (créditos superados a la fecha de ordenación/créditos totales de la titulación).

5.– El alumnado al que se le haya asignado un orden de matrícula en un plan antiguo y desee adaptarse a un plan nuevo, deberá personarse en la secretaría del Centro el día en que fue citado, solicitar la adaptación y automatricularse.

Estudiantes que no hayan realizado matrícula en el curso 2006-2007.

*Artículo 32.–* El alumnado que no se haya matriculado en el curso 2006-2007, así como quienes hayan recibido aceptación por traslado, no recibirán el sobre de citación en su domicilio, por lo que deberán pasar por la Secretaría del Centro entre los días 2 y 11 de octubre de 2007 para formalizar su matrícula.

Documentación a presentar para la matrícula.

*Artículo 33.–* 1.– La documentación general que debe presentar cada estudiante que se vaya a matricular por primera vez en 1.º de cualquier titulación es la siguiente:

a) Impreso de datos económicos y estadísticos.

b) Fotocopia del DNI o Pasaporte.

c) Dos fotografías con el nombre y apellidos al dorso.

d) Impreso de domiciliación del pago de la matrícula.

e) Fotocopia compulsada o fotocopia y original del Título de Familia Numerosa en vigor expedido por la Diputación, u otro documento que acredite el derecho a la reducción o exención de los precios públicos de matrícula.

f) Impreso de solicitud de la tarjeta universitaria, salvo para quienes se hayan matriculado en la UPV/EHU en el curso 2006-2007.

g) Fotocopia del resguardo de solicitud de Beca, si ésta se solicita.

h) Fotocopia del documento de afiliación a la Seguridad Social para el Seguro Escolar.

2.– Además de lo anterior, según la modalidad de acceso a la titulación, cada estudiante deberá presentar la siguiente documentación:

Hautaprobak egin dituzten ikasleek:

i) Hautaprobetako txartelaren fotokopia erkatua edo fotokopia eta jatorrizkoa.

j) Ohorezko matrikula globala lortu duten LOGSE-ko ikasleek horren ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

k) Espedientea lekuz aldatzeko (matrikulatuta egon den unibertsitate edo ikastegitik aldatzeko) gastuak ordaindu izanaren agiria. UPV/EHUko ikasleek ez dute agiri hau aurkeztu behar.

– LHko ikasleek, ikasle titulatuek, 2. ziklora sartzera doazenek eta 25 urtetik gorakoek:

l) Ikasketen ziurtagiri pertsonalaren, kalifikazio liburuaren edo kasuan kasuko titulaziora sartzeko bidea ematen dion tituluaren edo 25 urtetik gorakoentzako probako txartelaren fotokopia erkatua, edo fotokopia eta jatorrizkoa.

3.– Lehenengo mailatik gorako ikasleek eta lehenengo mailako errepikatzaileek honako agiriok aurkeztu behar dituzte:

a) Datu ekonomiko eta estatistikoen inprimakia (aurreko ikasturtean matrikulatuta egon ez diren ikasleek bakarrik).

b) NANaren edo pasaportearen fotokopia.

c) Diputazioak emandako familia ugariaren tituluaren fotokopia erkatua edo fotokopia eta jatorrizko agiria, edo matrikularen prezioa murrizteko edo ordaintzetik salbuesteko eskubidea ematen duen beste edozein agiri.

d) Espedientea lekuz aldatzeko gastuak ordaindu izanaren gordekina (unibertsitate honetako beste ikastegi batetik edo beste unibertsitate batetik aldatutako ikasleentzat besterik ez).

e) Gizarte Segurantzako afiliazio agiria eskola asegururako (beste unibertsitate batetik hona aldatu direnek bakarrik).

f) Ikasleak beka eskatu badu, eskari horren gordekinaren fotokopia.

Erasmus programako edo antzeko nazioarteko programetako ikasle atzerritarrak.

*34. artikulua.*– Ikasle hauek ez dute hemen matrikularik ordaindu beharko, euren unibertsitatean ordainduta izango dute eta.

Honako agiriok aurkeztu beharko dituzte:

a) Erasmus ikasle atzerritarrek edo antzekoek UPV/EHUn izena emateko inprimakia (orri horretan koordinatzaileak zehaztu beharko ditu ikasleak egingo dituen irakasgaiak, espedientean alta emateko).

b) Nortasun-agiriaren edo pasaportearen fotokopia.

c) Bi argazki.

Estudiantes de selectividad:

i) Fotocopia compulsada, o fotocopia y original de la tarjeta de selectividad.

j) Certificado de haber obtenido, en su caso, matrícula de honor global para estudiantes LOGSE.

k) Resguardo de haber abonado los derechos de traslado de expediente, desde la universidad y/o centro donde hayan realizado la matrícula, salvo para el alumnado de la UPV/EHU.

Estudiantes de FP, estudiantes con titulación, estudiantes que acceden al 2.º ciclo y Mayores de 25 años:

l) Fotocopia compulsada, o fotocopia y original de la certificación académica personal, libro de calificaciones, título que le dé acceso a dichas titulaciones o tarjeta de calificación de la prueba de Mayores de 25 años.

3.– La documentación que deben presentar los estudiantes que se vayan a matricular de cursos superiores a 1.º y repetidores es, según los casos, la siguiente:

a) Impreso de datos económicos y estadísticos (sólo para el alumnado que no se haya matriculado en el curso anterior).

b) Fotocopia del DNI o Pasaporte.

c) Fotocopia compulsada o fotocopia y original del Título de Familia Numerosa en vigor, expedido por la Diputación, u otro documento que acredite el derecho a la reducción o exención de los precios públicos de matrícula.

d) Resguardo de haber abonado los derechos de traslado de expediente, desde la universidad y/o centro donde se hayan matriculado con anterioridad (sólo para quienes hayan realizado traslado de otras universidades o de otro centro de esta universidad).

e) Fotocopia del documento de afiliación a la Seguridad Social para el Seguro Escolar (Sólo para quienes procedan de traslado de otra universidad).

f) Fotocopia del resguardo de solicitud de Beca, si ésta se solicita.

Alumnado extranjero del programa Erasmus o programas internacionales similares.

*Artículo 34.*– La matrícula de este colectivo de estudiantes será gratuita por haberla abonado en la universidad de procedencia.

La documentación que debe presentar es:

a) Impreso de inscripción en la UPV/EHU para alumnado extranjero Erasmus o similar (el coordinador, coordinadora deberá detallar en el impreso de inscripción la relación de asignaturas que cada estudiante cursará durante su estancia para que sean dadas de alta en su expediente).

b) Fotocopia de su carta de identidad o pasaporte.

c) 2 fotografías.

d) Jatorrizko unibertsitatean egindako matrikularen gordekinaren fotokopia.

e) E-111 dokumentuaren fotokopia edo, ezinezkoa balitz, aseguru indibidualaren erreferentzia.

Sicue-Seneka edo antzeko programen bidez beste unibertsitate batzuetatik datozen ikasleak.

*35. artikulua.*– Ikasle hauek ez dute hemen matrikularik ordaindu beharko, euren unibertsitatean ordainduta izango dute eta.

Honako agiriok aurkeztu beharko dituzte:

a) Sicue-Seneka edo antzeko programetako ikasleek UPV/EHUn izena emateko inprimakia (orri horretan koordinatzaileak zehaztu beharko ditu ikasleak egingo dituen irakasgaiak, espedientean alta emateko).

b) Nortasun-agiriaren fotokopia.

c) Bi argazki.

d) Jatorrizko unibertsitatean egindako matrikularen gordekinaren fotokopia.

e) Eskola aseguruaren ordainagiriaren fotokopia edo, ezinezkoa balitz, aseguru indibidualaren erreferentzia.

Matrikula ordaintzea.

*36. artikulua.*– 1.– Ikasleek unibertsitateari ordaindu beharrekoa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zehaztuko du urte bakoitzerako.

2.– Prezio publiko murriztuak ordaintzeko edo preziook ordaintzetik salbuetsita egoteko eskubidea izateko, matrikula egiteko epearen barruan bete beharko dira horretarako baldintzak.

3.– Ikasle bakoitzak ordaindu behar duen matrikularen zenbatekoaren kalkulua era automatikoan egiten da, ikasleak ikastegiko idazkaritzan matrikula eskaria aurkezten duenean.

4.– Matrikula ordaintzeko erak:

– Ikasleak unibertsitateari kontu zenbaki bat eman eta ordainketa horra helbideratzea. Matrikula helbideratzeko azken eguna ikasturte bakoitzeko urtarrilaren 15a izango da, beka deialdiaren lehen ebazpenaren zain dauden ikasleentzat izan ezik; horientzat, beka ukatuz gero, otsailaren 4a izango da azken eguna. Bigarren matrikulaldian matrikulatzen direnentzat ere horixe izango da azken eguna.

– Matrikula egiten duenean ikasleari ematen zaion ordainagiri pertsonalizatuaren bidez, eta Prezioen Aginduan zehaztutako epeetan, ikasleak epeka ordaintzea erabakitzen badu. Matrikula orrian adierazten diren hiru aurrezki kutxetako batean ordaindu beharko da diru hori. Aurrezki-kutxak zigilatu eta baliozkotu

d) Fotocopia del resguardo de haber efectuado la matrícula en la universidad de origen.

e) Fotocopia del documento E-111 o en su defecto referencia del seguro individual.

Alumnado del programa Sicue-Séneca o similares, procedentes de otras universidades.

*Artículo 35.*– La matrícula de este colectivo de estudiantes será gratuita por haberla abonado en la universidad de procedencia.

La documentación que debe presentar es:

a) Impreso de inscripción en la UPV/EHU para estudiantes Sicue-Séneca o similar (el coordinador o la coordinadora deberá detallar en el impreso de inscripción la relación de asignaturas que cada estudiante cursará durante su estancia en esta universidad para que sean dadas de alta en su expediente).

b) Fotocopia del documento nacional de identidad.

c) 2 fotografías.

d) Fotocopia del resguardo de haber efectuado la matrícula en la universidad de origen.

e) Fotocopia del pago del seguro escolar o en su defecto referencias del seguro individual.

Pago de la matrícula.

*Artículo 36.*– 1.– Cada estudiante abonará a la universidad los importes que, para cada año académico, establezca el Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco.

2.– Para poder acogerse a las reducciones o exenciones de los precios públicos deberán cumplirse los requisitos exigidos dentro del plazo de matrícula.

3.– El cálculo del importe de la matrícula que cada estudiante debe abonar se realiza de forma automática en el momento de entregar la solicitud de matrícula en la Secretaría de su centro.

4.– El pago de la matrícula puede realizarse mediante:

– Domiciliación bancaria con cargo a la cuenta autorizada por el estudiante o la estudiante a la Universidad. La fecha tope para la domiciliación de las matrículas será el 15 de enero de cada curso académico, a excepción de quienes estén a la espera de la resolución de la beca en primera instancia, en cuyo caso el plazo será, caso de ser denegada, hasta el 4 de febrero. Este mismo plazo servirá para quienes realicen ampliación de matrícula.

– Con abonaré personalizado que se le entregará al formalizar la matrícula y en los plazos fijados en la Orden de Precios, si se acoge al pago aplazado. Estos abonarés se ingresarán en una de las tres cajas de ahorros que se indican en los impresos de matrícula. La caja de ahorros sellará y validará el ingreso realizado median-

egingo du ordainagiriaren bidez egindako ordainketa. Ikasleak ordainketa egin bezain laster, jatorrizko ordainagiria eraman beharko du ikastegiko Idazkaritzara. Ikasleak ordainagiriaren kopia bat gordeko du, ordaindu izanaren froga. Ikastegietako idazkaritzek ordainagiri pertsonalizatuaren jatorrizkoa baino ez dute onartuko ordainketa egiaztatzeko.

5.– Ikasleak epeka ordaintzea erabakitzen badu, Eusko Jaurlaritzak prezio publikoei buruzko aginduan zehaztutako epeak errespetatu beharko ditu.

6.– Ikasketa plana desagertu egin delako egokitu diren irakasgaiek ez dute kosturik izango, prezioen aginduak bestela zehazten ez badu bederen.

7.– Bigarren matrikulaldian eta beka ukatzen denean, matrikula ezin izango da zatika ordaindu.

8.– Ezohiko azterketaren kalifikazioen zain dauden ikasleek hiru epetan ordaindu beharko dituzte beti «behin-behineko» matrikulak, salbu-eta matrikulan ordaindu beharreko kopurua txikiagoa denean Prezioen Aginduan epeka ordaintzeko zehaztutako gutxienekoa baino.

Lehenengo epea behin-behineko matrikularen arabera kalkulatuko da. Ikaslea kalifikatu eta behin betiko matrikula zein izango den jakin ondoren, automatikoki kalkulatuko dira bigarren eta hirugarren epeetan ordaindu beharreko diru-kopuruak.

Matrikula baliogabetzea.

*37. artikulua.–* 1.– EAEko Tasa eta Prezio Publikoen maiatzaren 29ko 13/1998 Legearen arabera, nahiz eta ikasleek legeak agindutako epe eta moduan eskatu matrikula baliogabetzea, ez zaie inolaz ere itzuliko ordaindutako dirua.

2.– Hori dela eta, beste unibertsitate publiko batean onartua izateko zain daudela egiaztatzen duten ikasleek behin-behineko matrikula egin ahal izango dute, Unibertsitatera Sartzeari buruzko 69/2000 Errege Dekretuaren arabera (20.6. artikulua). Behin betiko matrikula egitean ordainduko dituzte prezio publikoak.

3.– Matrikularen prezioaren zatiren bat edo ezer ez ordaintzeak matrikula baliogabetzea ekarriko du, eta ikasleak ez du eskubiderik izango dirurik bueltan jasotzeko, hori guztia Iraute Arauetako 5.3. atalari jarraiki.

4.– UPV/EHUk ikusiko balu ikasleak ez duela betetzen matrikula egiteko baldintzaren bat, ez luke onartuko matrikula egiteko eskaera eta ordaindutako dirua itzuliko lioke ikasleari.

5.– Matrikula baliogabetzeko epea urte bakoitzeko abenduaren 31n bukatuko da. Data horretatik aurrera ez da baliogabetuko matrikularik, baldin eta unibertsitateak baimena beren-beregi ematen ez badu, ikasleak eskaera egin eta gero.

te abonaré. El original de dicho abonaré se entregará en la Secretaría del centro después de haber realizado el pago. Cada estudiante se quedará con un duplicado que le servirá como justificante del pago. Las Secretarías de los centros sólo admitirán como justificante de pago el original del abonaré personalizado.

5.– Si se opta por realizar el pago de la matrícula en plazos, deberán respetarse las fechas que establece el Gobierno Vasco en la Orden de Precios.

6.– Las asignaturas adaptadas, por extinción del plan de estudios, no tendrán coste económico, salvo que la Orden de Precios disponga lo contrario.

7.– En los pagos por ampliación de matrícula y por becas denegadas no es posible el pago fraccionado.

8.– El pago de las matrículas «transitorias» realizadas con asignaturas pendientes de la calificación del examen extraordinario, será siempre de forma fraccionada en los tres plazos, salvo que el importe de la matrícula sea inferior al mínimo fijado en la Orden de Precios para dicho fraccionamiento.

El primer plazo se calculará en base a la matrícula transitoria. Una vez que el alumnado haya sido calificado y se conozca su matrícula definitiva, se recalculará de forma automática el importe del segundo y del tercer plazo.

Anulación de matrícula.

*Artículo 37.–* 1.– De conformidad con lo establecido en la Ley 13/1998, de 29 de mayo, de Tasas y Precios Públicos de la CAPV, la solicitud de anulación de matrícula efectuada por el alumnado en los plazos y forma previstos legalmente, en ningún caso supondrá la devolución de los precios públicos abonados.

2.– Por este motivo, el alumnado que acredite estar pendiente de admisión en otra Universidad pública podrá optar por realizar una matrícula provisional, de conformidad con el artículo 20.6 del Real Decreto 69/2000 sobre Acceso a la Universidad, cuyos precios públicos abonará en el momento de su formalización definitiva.

3.– El impago total o parcial del precio de la matrícula dará origen a la anulación de la matrícula, sin derecho a reintegro alguno de los importes abonados, según lo indicado en el apartado 5.3 de la Normativa de Permanencia.

4.– Cuando no se cumpla alguno de los requisitos exigidos para formalizar la matrícula, la UPV/EHU resolverá desestimar la solicitud de la misma y procederá a la devolución de los precios públicos abonados por la persona interesada.

5.– Cada estudiante podrá anular la matrícula hasta el 31 de diciembre de cada año. A partir de esta fecha no se admitirán anulaciones de matrícula salvo si la Universidad lo autoriza expresamente previa petición de la persona interesada.

6.– Ez ordaintzeagatik matrikula baliogabetzen zaien ikasleek ez dute jasoko ordaindutako diru kopurua eta ordaintzeko dituztenak zortzat hartuko dira, unibertsitatearen alde. Erabaki batean jasoko da zorra zenbatekoa den, eta horren berri emango zaie ikasleei.

7.– UPV/EHUrekin zorrak dituztenek ezin izango dute aurrerantzean beste matrikularik egin. Halaber, ez zaie emango titulurik edo ziurtagiririk, ezta espediente akademikoari buruzko informaziorik ere. Azkenik, ezingo dituzte erabili UPV/EHUren zerbitzuak.

8.– Matrikula indarrean dagoen ikasturtean berreskuratu nahi duten ikasleek, urte horretako ekainaren 1a baino lehen ordaindu beharko dute zor duten dirua.

9.– Egun horretatik aurrerako ordainketek ez dute inolaz ere indarrean dagoen ikasturteko matrikula berreskuratzeko eskubiderik emango. Ordainketa horien bitartez 7. puntuan aipatutako eskubideak baino ezin izango dira berreskuratu.

10.– Ikasle berriek berriro eman beharko dute izena unibertsitatean ikasketak egiten hasi nahi badute.

11.– Ikasle bekadun gisa matrikulatzeko, beka deialdian eskatzen diren baldintza akademikoak matrikula egiterakoan bete beharko ditu ikasleak, eta aurretik beka eskaera egina eduki beharko du. Matrikulatzerakoan beka eskaeraren agiria aurkeztu beharko du, matrikulatzeko behar diren beste dokumentuekin batera. Bestela, matrikulako irakasgaien prezioak ordaindu beharko dituzte, nahiz eta horrek ez duen eragotziko beka eskatzea.

Hala ere, ikasle batek eskakizun akademikoak betetzeagatik bekadun gisa matrikulatu bada eta azkenean beka ukatzen bazaio, ukoa jakin ondoren matrikula baliogabetzea eskatzen badu ez da zorduntzat hartuko.

Matrikula lehen epean egiten duten ikasleak berriak badira eta matrikula egiterakoan bekaren agiririk ez badute, ikasle ez-bekadun gisa matrikulatuko dira. Behin beka eskaria eskuratuta, matrikula egin den ikastegiko Idazkaritzan aurkeztu behar dute, matrikula eguneratzeko bekadun gisa.

Ohorezko matrikula.

*38. artikulua.–* Ohorezko matrikulak prozedura honen arabera gestionatuko dira:

a) Irakasgaietan ohorezko matrikulak eman ahal izango dira, matrikula bat hogei ikasleko multzo bakoitzeko edo hogeitik beherako ikasle multzo bakoitzeko. Irakasgai bateko ikasle guztiak zenbatzeko, bakartzat hartuko da akta, dauden taldeak kontutan hartu gabe.

6.– El alumnado al que se le haya anulado la matrícula por impago, perderá las cantidades abonadas y las pendientes de pago tendrán la consideración de deuda a favor de la universidad, que será establecida mediante resolución y notificada a la persona interesada.

7.– Quienes tengan deudas pendientes con la UPV/EHU no podrán, en lo sucesivo, realizar nuevas matrículas. Asimismo, no se les expedirán títulos, ni certificaciones, ni notas informativas sobre su expediente académico. De la misma manera, tampoco podrán disfrutar de los servicios que ofrece la UPV/EHU.

8.– Para recuperar la matrícula del año académico en curso, las personas interesadas deberán abonar las cantidades pendientes de pago antes del 1 de junio del año correspondiente.

9.– Los pagos realizados con posterioridad a esta fecha no darán derecho, en ningún caso, a recuperar la matrícula del año en curso, y sólo servirán para recuperar los derechos citados en el punto 7.

10.– El alumnado de nuevo acceso que haya anulado la matrícula deberá solicitar nueva inscripción si desea volver a iniciar estudios universitarios.

11.– Solamente podrán matricularse como estudiantes con disfrute de beca quienes en el momento de realizar la matrícula reúnan los requisitos establecidos en la convocatoria de becas y hayan tramitado previamente la solicitud de beca, debiendo presentar el resguardo correspondiente junto con los demás documentos de matrícula. En caso contrario y sin perjuicio de poder realizar la solicitud de beca, deberán abonar los precios de las asignaturas de la matrícula.

No obstante, no tendrá la consideración de deudor el alumnado matriculado como becario por cumplir los requisitos académicos, y que al resolverse la beca le fuera denegada y solicitase la anulación de la matrícula una vez comunicada la denegación.

El alumnado de nuevo ingreso que se matricule en el primer plazo y no tenga el resguardo de la beca en el momento de formalizar su matrícula, se matriculará como estudiante sin beca. Cuando disponga de la solicitud de la beca la entregará en la Secretaría del centro donde se haya matriculado con el fin de que se le actualice el tipo de matrícula a becario/a.

Matrículas de honor.

*Artículo 38.–* Las matrículas de honor se gestionarán de acuerdo con el siguiente procedimiento:

a) Se podrán conceder matrículas de honor por asignatura a razón de una por cada veinte estudiantes o fracción de veinte, considerando el acta como única para el total de estudiantes por asignatura, independientemente de los grupos que haya.

b) Ohorezko matrikulak eskubidea ematen du matrikulan deskontua izateko, baina hori aplikatzen da ikasketa berberetan egiten den hurrengo matrikulan, edo lehen zikloa egin ondoren bigarren zikloko ikasketak hastean.

Deskontua UPV/EHUko ikasleei bakarrik egingo zaie, ez beste unibertsitate batzuetatik etorritako ikasleei, unibertsitateok publikoak nahiz pribatuak izan.

c) Murrizpena irakasgaika edo kreditu kopuruen arabera egingo da, ikasketa planaren egituraren arabera. Irakasgaien kasuan, ohorezko matrikula(k) lortu d(ir)en irakasgaia(k) urtekoa edo lauhilabetekoa(k) izanik, % 100 edo % 50 aplikatuko da.

d) Plan zaharretik plan berrira egokitutako irakasgaien kasuan, ohorezko matrikularekin gaindituriko irakasgaiaren ordez aitortzen den kreditu kopuruaren arabera egingo da murrizpena.

e) Batxilergoko irakasgaietan lorturiko ohorezko matrikulek ez dute murrizpenerako eskubiderik ematen. Kalifikazio orokorra ohorezko matrikula denean baino ez dute izango ikasleek matrikula ordaintzetik salbuesteko eskubidea unibertsitatean lehen aldiz matrikulatzean.

Bigarren matrikulaldia.

*39. artikulua.*– Bigarren lauhilabeterako bigarren matrikulaldia zabaldu nahi duten ikastegiek Ikastegiko Batzarrean onartu beharko dute horretarako erabakia. Matrikula berri hori idazkaritzetan egingo da, 2008ko martxoaren 5a baino lehenago. Bigarren matrikulaldi hori irakasgai hauetarako baino ez da zabalduko:

a) Aurrebaldintzak dauzkaten irakasgai edo ikastaroetarako.

b) Plaza hutsak geratzen diren hautazko eta aukera askeko irakasgaietarako.

c) Enborreko eta nahitaezko irakasgaietarako, Ikastegiko Batzarrak hala onartu badu.

## V. KAPITULUA
## IRAKASKUNTZAREN PLANGINTZA ETA IKASLEEN EBALUAZIORAKO ARAUDIA

Irakaskuntzaren plangintza.

*40. artikulua.*– Eskola edo fakultateko zuzendaritza arduratuko da ikastegian ematen diren titulu eta espezialitateen ikasketak berdintasunez gestionatu eta pareko baldintzetan irakats daitezen.

*41. artikulua.*– 1.– Ikasturtea astez asteko ordutegi baten arabera antolatuko da, eta eskola teoriko eta praktikoek osatuko dute. Eskola praktikoen programazio zehatza aurretik zehaztea ezinezkoa balitz, gutxienez aurreikuspen nagusiak ezarriko dira.

b) Las deducciones por matrícula de honor se aplicarán en la siguiente matrícula de los mismos estudios o de los estudios de 2.º ciclo a los que se tenga acceso con el primer ciclo cursado.

Estas deducciones únicamente se aplicarán al colectivo de estudiantes de la UPV/EHU y no a los procedentes de otras universidades, sean públicas o privadas.

c) La deducción se realizará por asignaturas o por número de créditos, según esté estructurado el plan de estudios. En el caso de asignaturas, se aplicará el 100% o el 50% según sea anual o cuatrimestral la/s asignatura/s en la/s que se obtuvo matrícula/s de honor.

d) En el caso de adaptación del plan antiguo al plan nuevo se aplicará la deducción en función del número de créditos que se le adapten por la asignatura superada con matrícula de honor.

e) Las matrículas de honor en asignaturas de Bachillerato no dan derecho a reducción. Sólo si la calificación global es de matrícula de honor tienen derecho a exención en el pago de la matrícula la primera vez que accedan a la universidad.

Ampliaciones de matrícula.

*Artículo 39.*– Los Centros que realicen ampliación de matrícula para el segundo cuatrimestre deberán aprobarlo por la Junta de Centro y se realizará en las Secretarías antes del 5 de marzo del 2008. Esta ampliación únicamente podrá realizarse para las siguientes asignaturas:

a) Asignaturas o cursos con prerrequisitos.

b) Asignaturas optativas y de libre elección en las que hubiera plazas disponibles.

c) Asignaturas troncales y obligatorias, siempre que lo acuerde la Junta de Centro.

## CAPÍTULO V
## PLANIFICACIÓN DOCENTE Y EVALUACIÓN DEL ALUMNADO

Planificación docente.

*Artículo 40.*– La Dirección de cada Escuela o Facultad velará por la igualdad de condiciones en la docencia y gestión de las enseñanzas conducentes a la obtención de los diversos títulos y de las especialidades que se impartan en el Centro.

*Artículo 41.*– 1.– El curso lectivo se regirá por un horario semanal de clases teóricas y de clases prácticas, que será hecho público en cada Centro. Si no fuera posible establecer la programación detallada de las clases prácticas con antelación, se fijarán, al menos, las previsiones generales sobre ellas.

2.– Ikasturte bakoitzeko matrikula epea ireki aurretik, ikastegi bakoitzak ikasleen esku jarriko du sailek titulazioetako irakasgaiez onartu duten informazioa, hau da:

– Helburuak, programa eta oinarrizko bibliografia.

– Talde bakoitzaren eskola praktiko eta teorikoetarako aurreikusitako irakasleen izenak.

– Ebaluazio-sistema.

– Azterketen aldia: noiztik noiz artekoa.

– Beste ikasketa jarduera batzuk.

Irakasgai berean talde bat baino gehiago denean, oinarrizko ikasgai-zerrenda bera izango da talde hauentzat guztientzat, taldeko irakasleek adosturiko erabakiaren bidez. Ados jartzen ez badira, Saileko Kontseiluak, irakasgaia ematen duten irakasle guztiei entzun ondoren, denek eman beharreko gaiei buruzko erabaki arrazoitua hartuko du, bai eta onartuko diren salbuespenei buruzkoa ere.

Datu hauez gain, interesgarritzat jotzen diren beste batzuk ere jarriko dira ikasleen esku. Horretarako, ikastegiak beharrezkoa den informazioa eskatuko die sailei behar besteko aurretiaz.

3.– Eskola teoriko eta praktikoen ordutegian irakasleen izenak ere agertuko dira.

4.– Matrikulaturiko ikasleek talde zehatz batean sartzeko eskaria egin ahal izango dute, ikastegi bakoitzak horretarako zehaztutako epean. Eskarien kopurua taldeko plazen kopurua baino handiagoa izango balitz, ikasleak irizpide objektiboen arabera banatuko dira taldeetan. Irizpideok argitara emango dira taldez aldatzeko eskariak egiteko epea hasi baino lehen. Edozelan ere, 5. eta 6. deialdietako ikasleek izango dute lehentasuna.

5.– Irakasleek Idazkaritza Birtualaren bidez lortu ahal izango dute talde bakoitzeko ikasleen zerrenda. Idazkaritza Birtualaren bidez egin ezean, berariaz eskatu beharko dute ikastegiko Idazkaritzan.

6.– Lehenago egiten ez badute, matrikularako azken epea amaitu eta lehenengo hamabost egunen barruan sailek eskola praktikoetako taldeak argitaratuko dituzte, ikastegiak ezarritako ordutegien arabera.

***42. artikulua***.– 1.– Ikastegi eta sailaren arteko harremanetarako, sailak ordezkari bat izendatuko du irakaskuntza eskaintzen duen ikastegi bakoitzean, ahal bada arduraldi osoa duena. Sailak pertsona horren izena jakinaraziko dio ikastegiko zuzendaritzari. Ikastegi bakarrean irakasten duten sailen kasuan, ordezkaria saileko zuzendaria bera izango da. Ikastegi batean baino gehiagotan irakasten duten sailen kasuan, berriz, ordezkari hori sailaren barne arauei jarraiki izendatuko da,

2.– Antes de la apertura del plazo de matrícula de cada curso académico, cada centro pondrá a disposición del conjunto de estudiantes la información aprobada por los departamentos sobre cada una de las asignaturas que se imparten en las diferentes titulaciones:

– Objetivos, programa y bibliografía básica.

– Profesorado previsto inicialmente para clases teóricas y prácticas de cada grupo.

– Sistema de evaluación.

– Período de exámenes.

– Otras actividades docentes.

En el supuesto de varios grupos de la misma asignatura, el temario básico deberá ser común para todos ellos, fijado mediante acuerdo, en su caso, de los diferentes miembros del profesorado de cada grupo. De no alcanzarse este acuerdo, el Consejo de departamento previa audiencia de todo el profesorado implicado, decidirá motivadamente sobre los temas comunes, como sobre las excepciones aceptadas.

Además se incorporarán a éstos otros datos que se consideren de interés. Con este fin, el Centro recabará de los departamentos la correspondiente información con la antelación pertinente, que obrará en poder de Centro.

3.– En los horarios de clases teóricas y prácticas figurarán los nombres de los profesores y de las profesoras que las imparten.

4.– El alumnado matriculado podrá solicitar, en el plazo que establezca cada Centro, su adscripción a un determinado grupo. Si el número de peticiones excediera la capacidad de algún grupo, las adscripciones se harán de acuerdo con criterios objetivos que serán hechos públicos con antelación al plazo de solicitud de cambio de grupo. En todo caso, tendrán prioridad quienes se encuentren en 5.ª y 6.ª convocatoria.

5.– El profesorado puede obtener las listas de clase de sus grupos a través de la Secretaría Virtual. Quienes no utilicen esta vía deberán solicitarlo expresamente a la Secretaría del Centro.

6.– En el caso de no realizarse con anterioridad, los departamentos establecerán los grupos de clases prácticas, de acuerdo con los horarios establecidos por el Centro, durante los primeros quince días a contar desde la finalización del último plazo de matrícula.

***Artículo 42***.– 1.– Para facilitar las relaciones entre el Centro y el departamento, éste designará un profesor o una profesora que ejercerá de representante, preferentemente con dedicación completa, en cada Centro en el que imparta docencia, comunicándose a la Dirección del Centro la persona designada. En los departamentos que imparten docencia en un solo Centro, la representación recaerá sobre el Director o Directora del departamento, y en los departamentos extendidos a va-

baina, betiere, ikastegian eskolak eman eta ikastegiari atxikitakoa izango da.

2.– Ikastegiko dekanotza edo zuzendaritzak hurrengo ikasturterako irakaslana antolatzeko plana jakinaraziko die zerikusia duten sail guztiei. Sailek, berriz, ikastegi bakoitzean eskolak ematen dituzten irakasle guztien irakaslanen behin betiko esleipena jakinaraziko dio ikastegi bakoitzari, tutoretza orduak barne. Informazio guzti hau publiko egingo da lauhileko bakoitzeko lehenengo 15 egunetan zehar ikastegiko iragarki taulan eta bertan egongo da lauhileko osoan zehar. Orobat bigarren lauhilekorako ezarritako tutoretzak urte bereko irailera arte mantenduko dira. Tutoretza ordutegiak aldatu ahal izateko, ikastegiko zuzendaritzaren edo dekanotzaren baimena beharko da eta, gutxien dela, aldaketak indarrean jarri baino 3 eskola egun lehenago argitaratu beharko dira.

3.– Irakats eskaintza egitean, talde bakoitzaren irakasleak Akademia Antolakuntzako datu basean sartu beharko dira, NAN zenbakia adierazita, kalifikazio-orrietan eta aktetan izen-deiturak ager daitezen, 47.4. artikuluaren arabera egin beharko liratekeen moldaketak eragotzi barik.

*43. artikulua.*– Ordutegiak egiterakoan ikastegiak arduratuko dira gutxien dela astean bi ordutako tartea egon dadin beste mota bateko jarduerak burutzeko, bai goizeko taldeentzat eta bai arratsaldekoentzat, halakorik egonez gero.

*44. artikulua.*– Eskoletako zuzendariek eta fakultateko dekanoek, bertako baliabideen heinean, talde bidaiak eta ikasketa-bidaiak egitea erraztu eta bultzatuko dute. Bidaiok behar besteko aurrekotasunaz programatuko dira, behar bezala antolatzeko eta beharrezko baimen akademikoak eta laguntzak eskuratzeko.

Ikasleen ebaluazioa.

*45. artikulua.*– 1.– Ikasleek berdintasun eta justizia-bermez ebaluatuak izateko eskubidea dute, jasotako irakaskuntza mailaren arabera.

2.– Ikasturtearen hasieran jakinarazi beharko da irakasgai bakoitzean erabiliko den ebaluazio sistema. Berdintasuna bermatzeko, sailak ahaleginduko dira era bereko ebaluazio sistemak ezartzen irakasgai bakoitzeko talde guztientzat. Horrela, bada, irakasleek ebaluaziorako proba eta irizpideak bateratu beharko dituzte, sailak oinarrizko baldintzetatik at utzi dituen alderdi eta gaietan. Adostasunik ez balego, Saileko Kontseiluak, ukituriko irakasle guztiei entzun ondoren, erabakiko du, modu arrazoituan, azterketa mota, bai eta aplika litezkeen salbuespenak ere.

rios Centros, la persona representante será nombrada de acuerdo con las normas de régimen interno del departamento, siendo, en todo caso, un profesor o una profesora con adscripción al Centro que imparta docencia en el mismo.

2.– Cada Decanato o Dirección del Centro comunicará a los Departamentos afectados el plan de organización docente para el curso académico siguiente, los Departamentos comunicarán a cada Centro la asignación definitiva de tareas docentes del profesorado que imparta docencia en el mismo incluyendo los horarios de tutorías. Esta última información será hecha pública durante los 15 primeros días de cada cuatrimestre en el tablón de anuncios del Centro, en el que permanecerá durante todo el cuatrimestre. El régimen de tutorías establecido para el segundo cuatrimestre se mantendrá, asimismo, durante el mes de septiembre de ese mismo año. Cualquier modificación de los horarios de tutorías deberá ser autorizada por la Dirección/Decanato del Centro y publicada con al menos 3 días lectivos de antelación.

3.– El profesorado de cada grupo será incorporado en la base de datos de Organización Académica al realizar la oferta docente, incluyendo su DNI, para que aparezca su nombre y apellidos en los documentos que se generan en el proceso de calificación y en las actas, sin perjuicio de las acomodaciones que resulten precisas en aplicación de lo previsto en el artículo 47.4.

*Artículo 43.*– Los Centros procurarán en la elaboración de los horarios que se disponga colectivamente de un intervalo de, al menos, dos horas semanales para otro tipo de actividades, tanto para los grupos de la mañana como de la tarde, si los hubiera.

*Artículo 44.*– Cada Decanato o Dirección del Centro propiciará y facilitará, con arreglo a sus medios, la realización de viajes colectivos y visitas de estudios, cuya programación se hará con la suficiente antelación para la debida organización de los mismos y la obtención de las eventuales dispensas académicas y de las posibles ayudas.

Evaluación del alumnado.

*Artículo 45.*– 1.– El alumnado tiene derecho a ser evaluado con garantías de equidad y justicia, y de acuerdo con el nivel de enseñanza impartida.

2.– La forma de evaluación de cada asignatura debe ser conocida desde el principio del curso. Para garantizar la igualdad, los departamentos tenderán a establecer sistemas de evaluación del mismo tipo para los distintos grupos de cada asignatura. En este sentido se procederá por los distintos miembros del profesorado a unificar mediante consenso las características de las pruebas y criterios de evaluación en las cuestiones no contempladas con carácter básico por el Departamento. Cuando no exista acuerdo, el Consejo de Departamento, previa audiencia del profesorado implicado, decidirá motivadamente las razones que afectan al establecimiento de un determinado tipo de examen, y las excepciones en su caso.

3.– a) Irakasgai baten ebaluazioa azterketen bidez, lanen bidez edo bien bidez burutu ahal izango da. Ebaluaketa bi motatakoa izan ahalko da: etengabekoa edo azkena.

b) Kredituen Sistema Europarra ezarri zaien talde edo irakasgaiak halako irakaskuntzarako ezartzen diren irizpideen arabera ebaluatuko dira. Irizpideok Saileko Kontseiluak onetsi beharko ditu.

c) Irakaskuntzaren Berrikuntzarako Programaren barruan ECTS kreditu sistemari jarraituz ikasturte osoka kredituetan ematen diren irakasgaietan, ikasleak, justifikatutako arrazoiengatik, ECTS sistemako kredituetan ematen diren irakasgaiak osorik egin ezin baditu, ebaluazio-sistema alternatibo bat edukiko du. Ebaluazio sistema hori Saileko Kontseiluak onetsi beharko du. Ikasleak ECTS sistemako kredituetan ematen den irakasgai bat gainditzen ez badu, bigarren deialdian ebaluazio-sistema alternatiboa erabili ahalko du.

d) Sistema alternatiboan -3c) puntua- eta IBP programaren barruan sartzen ez diren beste asignatura guztien ebaluazio-sisteman azterketa final bat egongo da, dagokion Saileko Kontseiluak aurretiaz ezarri eta argitaratutako irizpideen arabera. Irakasgaiaren ezaugarri eta edukiengatik posible bada azterketa bakar baten bidez ikaslearen ezagutza maila frogatzea, azterketak espedienteko notaren % 100 balio beharko du. Horrela ez bada, azterketari irakasgaiaren beste maila batzuk gainditu izana gehitu ahalko zaio, praktikak esaterako, irakasgaiaren ezaugarriekin bat badator.

e) UPV/EHUko estatutuetako 97. artikuluaren arabera, proba akademikoak, UPV/EHUn sartzekoak barne, egokitu egingo dira pertsona ezinduen beharretara, prozedura, era eta denborari dagokienean.

Egoera guzti hauek gauzatzeak ez du inolaz ere probaren edukia aldatzea ekarriko eta probarako eguna ere bere horretan mantendu beharko da.

4.– Erizaintzako Diplomaturako eta Irakasle titulazioetako practicumeko eskola praktikoetan ikasleak urtean deialdi bakarra izateko eskubidea izango du irakasgaia gainditzeko, baldin eta eskola horiek ematen dituzten ikastegiek berezko deialdiak ezartzen ez badituzte. Berezko deialdiok, beti ere, helburu akademikoak bete daitezela bermatu beharko dute.

5.– Irakasgaien ebaluazio eta kontrolerako prozedurak, programak eta helburuak aldatu ahal izango dira, Saileko Kontseiluak horretarako arrazoi larri eta justifikatua dagoela iritziz gero. Ezin izango da irakasgaiaren ebaluazioa egin irakasleek behar beste landu ez di-

3.– a) La evaluación de una asignatura podrá realizarse mediante exámenes, trabajos o ambos. Podrá ser evaluación continua o final.

b) Los grupos o asignaturas en los que se haya implantado el Sistema Europeo de Créditos se evaluarán de acuerdo con los criterios que a tal efecto se establezcan para este modelo de enseñanza, criterios que deben ser aprobados por el Consejo del Departamento.

c) En las asignaturas que se impartan en ECTS en cursos completos, dentro del programa IBP de impulso a la docencia, el alumnado que, por razones justificadas, no pueda seguir los cursos implantados mediante ECTS en su integridad, dispondrá de un sistema de evaluación alternativo, que debe ser aprobado por el Consejo del Departamento. En caso de que un estudiante no supere la asignatura en ECTS, la segunda convocatoria podrá regirse por el sistema de evaluación alternativo.

d) Tanto el sistema alternativo referido en 3c) como el sistema de evaluación del resto de asignaturas no integradas en el programa IBP, contemplarán la realización de una prueba final, de acuerdo con los criterios previamente establecidos y publicados por el Consejo de Departamento correspondiente. En el caso en que, atendiendo a la naturaleza y contenido de la asignatura, sea posible acreditar plenamente los conocimientos inherentes a través de una única prueba final, ésta deberá configurarse de tal forma que comprenda el 100% de la nota del expediente. En caso contrario, dicha prueba podrá complementarse con la acreditación de haber superado otros niveles de la asignatura, como pueda ser la realización adecuada de determinadas prácticas, en coherencia con la naturaleza de dicha asignatura.

e) De conformidad con el artículo 97 de los Estatutos de la UPV/EHU, en las pruebas académicas, incluidas las de acceso a la UPV/EHU, las personas con discapacidad tendrán derecho a su realización de forma adaptada, en procedimientos, forma y tiempo.

La asunción de dichas situaciones no implicará en ningún caso la alteración del contenido de la prueba, debiéndose, asimismo, mantener la fecha de realización de la misma.

4.– En las enseñanzas prácticas correspondientes a la Diplomatura en Enfermería y el practicum en las Titulaciones correspondientes a Magisterio, cada estudiante tendrá derecho a una única convocatoria anual para superar la asignatura, ello sin perjuicio de que los centros que impartan dichas enseñanzas puedan establecer un régimen propio de convocatorias, el cual deberá garantizar, en todo caso, el cumplimiento de los objetivos académicos.

5.– Los procedimientos de evaluación y control de las asignaturas, así como los programas y sus objetivos docentes, podrán estar sujetos a modificaciones por causa grave justificada apreciada por el consejo de departamento. La evaluación de la asignatura no podrá rea-

tuzten gaien inguruan, nahiz eta gaiok ikasturte-hasieran irakasgaiaren programan agertu.

6.– Azterketa egiterakoan, ikasleari identifikazioa eskatu ahal izango zaio.

7.– Sail edo ikastegiek ikasleak ezagutzeko bana ditzaketen identifikazio fitxak betetzea borondatezkoa izango da ikasleentzat. Edozein kasutan, fitxa honek ikaslea identifikatzeko ezinbesteko datuak besterik ez ditu jasoko, hau da: argazkia, izen osoa, maila, irakasgaia eta telefonoa.

*46. artikulua.–* 1.– Azterketak ahozkoak zein idatziak izango dira. Lehenengo kasuan publikoak izango dira eta ikasleak azterketa grabatzea eskatzeko eskubidea izango du.

2.– Irakasgaien ebaluazio zehatz eta etengabea egiteko, azterketa partzialak egin ahal izango dira, ikasturte bakoitzean irakasgai bakoitzerako zehazten diren baldintzetan.

3.– Ariketaren batean ikasleak iruzurrik egingo balu, horrek «gutxiegi» kalifikazioa ekarriko lioke, izan litzakeen bestelako erantzukizunez gain.

*47. artikulua.–* 1.– a) Kalifikazioak argitaratzea Talde bakoitzeko irakasleek azterketa partzial eta finalen kalifikazioak argitaratuko dituzte azterketa egin eta 20 eguneko epean eta, beti ere, irakasgai bereko hurrengo azterketa egin baino 7 egun lehenago gutxienik.

Irakasleek azken azterketen kalifikazioak argitaratuko dituzte azterketa egin eta 20 egun baliodunen epean. Horretarako, unibertsitateak euren esku jartzen dituen baliabide informatikoak erabiliko dituzte. Dena dela, nahi izanez gero, iragarki oholetan ere argitaratu ahal izango dituzte. Hala eginez gero, ikasleak NAN zenbakiaz bakarrik identifikatuko dira. Era batera zein bestera, argi agertu beharko da argitaratze data, kalifikazioak berrikustea eskatzeko epea zenbatzeari begira.

b) Aktak. Irakasgaiaren aktetan ikasleak lorturiko kalifikazio guztiak agertuko dira. Akta hauek, behar bezala beteta, ikastegiko zuzendaritzara bidaliko ditu irakasleak, eta idazkari akademikoak irakaslearen sinadura egiaztatu ondoren, berehala argitaratuko dira UPV/EHUko web orrian, ikasleek ikus ditzaten. Dena dela, nahi izanez gero, iragarki oholetan ere argitaratu ahal izango dituzte. Hala eginez gero, ikasleak NAN zenbakiaz bakarrik identifikatuko dira. Aktetan akatsik antzemango balitz, beroriek zuzentzeko diligentziak erantsiko litzaizkioke aktari behealdean.

lizarse sobre temas que no hayan sido tratados por el profesor o profesora correspondiente, aún cuando aquellos figuraran en el programa inicial de la asignatura.

6.– En la realización de cualquier examen, el alumnado podrá ser requerido a identificarse.

7.– La cumplimentación de las fichas que los Departamentos o Centros puedan distribuir entre el alumnado a fin de conocer su identidad tendrá carácter voluntario. En todo caso, dicha ficha sólo podrá contener los datos imprescindibles para la identificación de cada estudiante, como son: fotografía, nombre completo, curso, asignatura y teléfono.

*Artículo 46.–* 1.– Los exámenes serán orales o escritos. En el primer caso serán públicos y cada estudiante tendrá derecho a exigir la grabación del examen.

2.– Para una evaluación precisa y continuada de las asignaturas, podrán realizarse exámenes parciales en las condiciones establecidas en cada curso para cada asignatura.

3.– La realización fraudulenta de algún ejercicio implicará la calificación de «Suspenso», sin perjuicio de la responsabilidad que pudiera corresponder.

*Artículo 47.–* 1.– a) Publicación de calificaciones. La calificación de los exámenes, tanto parciales como finales, se hará pública por los profesores, las profesoras responsables de cada grupo dentro del plazo de 20 días naturales tras su realización y, en todo caso, al menos con 7 días de antelación a la fecha de celebración del siguiente examen de la misma asignatura.

La calificación de los exámenes finales será dada a conocer por el profesor o profesora responsable de cada grupo en el plazo de 20 días naturales a partir de la realización del examen mediante los medios informáticos habilitados por la universidad; la obligación de publicación de las calificaciones por medios informáticos no impide la posible publicación de estas en el tablón de anuncios correspondiente, debiendo, en este caso, identificarse al alumnado únicamente mediante su DNI. En ambos casos, deberá constar claramente la fecha de publicación, a los efectos del cómputo del plazo de solicitud de revisión de calificaciones.

b) Actas. En las actas de cada asignatura constarán las calificaciones obtenidas por cada estudiante. Estas actas, debidamente cumplimentadas serán remitidas a la Dirección del Centro, y una vez verificada la firma del profesor o profesora responsable por el Secretario Académico o la Secretaria Académica del Centro, serán dadas a conocer de inmediato, en la página correspondiente de la UPV/EHU, la cual estará a disposición del alumnado. No obstante, esta publicación informática no impide, asimismo, la posible publicación de las calificaciones en el tablón de anuncios correspondiente, debiendo identificarse al alumnado únicamente mediante su DNI. Los errores que en las actas se advirtieran a posteriori serán subsanados mediante diligencia que se incorporará al pie del acta.

c) Irakasleek kalifikazioak ez bidaltzea. Akademia Antolakuntza eta Koordinazioko Errektoreordetzak epe hauek bete ez dituzten irakasleen zerrenda bidaliko die dagokien sailei. Kalifikazioak dagokion datan argitaratu ezean, unibertsitateak zenbait neurri har litzake, UPV/EHUko Estatutuei jarraiki. Hori alde batera utzita, ikastegietako zuzendaritzak/dekanotzak oharra bidali ahalko die eginbehar hori bete ez duten irakasleei. Akta sinatu behar duen irakasleak dena delako arrazoiengatik sinatu ezin balu, irakasgaiaren ardura daukan sailak ordezko irakasle bat izendatuko du akta sinatzeko, aurreko puntua betetzeari begira.

2.– Ikasle guztiek kalifikazioen doaneko ziurtagiria jaso ahal izango dute, eskatuz gero. Dokumentu horretan jasoko dira ikaslea ikasturte horretan matrikulatuta dagoen irakasgaiak, informaziorako baino ez da izango eta ikastegiko Idazkaritzak emango du, administratzaileak edo Idazkaritzaren buruak sinatuta.

3.– 49. artikuluan aurreikusitakoa eragotzi barik, 1. deialditik 4. deialdira bitartean, irakasgai bateko taldeek irakasle desberdinak dauzkatenean, irakasleok kalifikazio sistema bateratua erabili ahal izango dute. Kasuotan irakasle bakoitzak bere taldeenak sinatuko ditu.

4.– Aurreko zenbakian aurreikusitakoa gorabehera, eta kasu berberetarako, ikastegietako arautegiek ebaluazio bateratua ezarri ahal izango dute 1., 2., 3. eta 4. deialdirako. Ebaluazio bateratu hori kasuan kasuko irakasgaiko hiru irakaslek, edo guztiek, osatutako epaimahaiaren bidez egingo da. Epaimahaiok baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Epaimahaiak irakasgai bereko taldeetako irakasleek osatuko dituzte. Taldeetako irakasle arduradunak epaimahaia osatzeko behar diren kideak baino gutxiago direnean, epaimahaia osatuko da ikastegian jakintza-arlo horretan kategoria handiena duten irakasleekin, eta, horien artean, antzinatasun handiena dutenekin.

b) Epaimahaian talde bakoitzeko irakasle bat egon beharko da nahitaez.

c) Irakasgaia ematen duten irakasleak epaimahaia osatzeko behar diren kideak baino gehiago direnean, honakoek osatuko dute epaimahaia: taldeko irakasle arduradunak, ikastegian kategoria altuena daukaten irakasleek eta, horien artetik, antzinatasun handiena duten irakasleek, epaimahaiko kide guztiak osatu arte.

d) Kategoria handiena eta arloan (edo bestela, administrazioan) antzinatasun handiena daukan irakaslea

c) Incumplimiento de remisión de calificaciones por parte del profesorado. El Vicerrectorado de Organización Académica y Coordinación remitirá a las direcciones de los departamentos afectados la relación del profesorado que haya incumplido estas previsiones. El no presentar las calificaciones en la fecha pertinente podrá ser motivo para la adopción de las oportunas medidas de conformidad a lo dispuesto en los Estatutos de la UPV/EHU. Todo ello a salvo del recordatorio que en su caso envíen las Direcciones/Decanatos de los Centros a los docentes que incumplan dicha obligación. En el caso de que el profesorado responsable del acta no pudiera, por las causas que fueran, llevar a cabo la firma de la misma, el departamento responsable de la asignatura procederá a su sustitución con el fin de dar cumplimiento al punto anterior.

2.– Cada estudiante podrá recibir, si lo solicita, un justificante gratuito con las notas obtenidas. Este documento se referirá a las asignaturas de las que se hubiera matriculado en el año académico en curso, sólo tendrá efectos informativos y será expedido por la Secretaría del Centro con la firma de la persona que esté a cargo de la Administración del Centro o de la Jefatura de Negociado de Secretaría.

3.– Sin perjuicio de lo previsto en el artículo 49, en las convocatorias 1.ª a 4.ª, en los supuestos de varios grupos de la misma asignatura encomendados a distintos miembros del profesorado, éstos podrán establecer un sistema de calificación conjunta. En estos casos, las Actas serán firmadas por cada docente respecto de su grupo o grupos.

4.– No obstante lo previsto en el número anterior, y para los mismos supuestos, los Reglamentos de Centro podrán establecer la evaluación conjunta mediante tribunales compuestos por tres miembros del profesorado, o por todos los profesores/as de la asignatura, para las convocatorias 1.ª a 4.ª. Dichos tribunales deberán atenerse a los siguientes requisitos:

a) Los tribunales estarán compuestos únicamente por profesores y profesoras de los diferentes grupos de la misma asignatura. Cuando los docentes de los grupos sean un número inferior al de la composición del tribunal, éste se completará con el profesor o profesora del Centro de mayor categoría docente en el Área de Conocimiento, y de mayor antigüedad en la misma.

b) En cada tribunal formará parte del mismo necesariamente el profesor o profesora de cada grupo.

c) Cuando los tribunales se compongan de un número menor de miembros que el del total de docentes que imparten la asignatura, formarán los mismos, además del profesor o de la profesora del grupo, los del Centro con mayor categoría docente en el Área de Conocimiento y de entre ellos, los de mayor antigüedad en la misma, hasta completar el total de miembros del tribunal.

d) Dichos tribunales serán presididos por el profesor o profesora de mayor categoría y antigüedad en la

izango da epaimahaiaren buru. Epaimahaiaren osaera ikasturteko lehen hiruhilekoan argitaratuko da.

e) Kasu hauetan, bai kalifikazioak (sailetako iragarki oholetan argitaratuko direnak) bai aktak, talde bakoitzeko irakasleak eta epaimahaiaren buruak sinatuko dituzte.

*48. artikulua.–* Bosgarren, seigarren eta salbuespenezko deialdietako epaimahaiak Ikastegiko Batzarrak izendatuko ditu ikasturte bakoitzeko lehenengo hiruhilekoan, sailei entzun eta gero. Hauek saileko hiru irakaslek osatuko dituzte, bereziki irakasgaiari dagokion jakintza-arlokoak eta kontuan izanda irakasgaia zein hizkuntzatan ematen den; probaz gain, epaimahaikideek ikaslearen historiala eta gainerako gorabehera akademikoak hartuko dituzte kontutan. Epaimahaia osatuko duten pertsonen zerrenda ikasturte bakoitzeko lehenengo hiruhilekoan jarriko da jendaurrean.

Epaimahaien erabakien kontra erreklamazioak jarri ahal izango dira, 49.2. artikuluan zehaztutako prozedurari jarraiki. Azterketa epaimahaiak berrikusiko du halakoetan.

*49. artikulua.–* 1.– Azken azterketen zuzenketa eta berrikusketei buruzko erreklamazioak ebazteko, sail bakoitzak batzorde bat izendatuko du. Batzordea osatuko dute, gutxienez, hiru irakaslek eta ikasle batek jakintza-arlo bakoitzeko. Batzordekide hauen ordezkoak ere izendatuko ditu sailak. Epaimahai horren burua irakasle iraunkor bat izan beharko da. Sailak egoitza daukan ikastegiko Ikasleen Kontseiluak proposatuko du ikaslea, edo, bestela, Unibertsitateko Ikasleen Kontseiluak, behin ikastegietako kontseiluen iritzia entzun eta gero. Sailak nahitaez onartuko du proposamen hori. Kalifikazioa aldatu behar izanez gero, aldaketa batzordeko irakasleek egingo dute, dela bozketa bidez dela batez besteko nota kalkulatuta.

2.– Honako prozedura hau beteko da:

a) Kalifikazioak argitaratzea. Kalifikazioa argitaratzean, azterketak berrikusteko tokia, eguna eta ordua zehaztu beharko da; berrikuspenerako epea, bestalde, gutxienez bi egun baliodunekoa eta gehienez zortzikoa izango da. Kalifikazioa berrikusten denean ikasleak bertan egoteko eskubidea izango du. Ikaslea ezin bada joan berrikuspenera arrazoi akademikoengatik edo behar bezala justifikatutako arrazoi pertsonal larriengatik, beste egun batean egiteko eskubidea izango du. Egun hori irakaslearekin adostu beharko du, gorago aipatu den epearen barruan. Berrikuspena amaiturik, irakasleak akta ofizialak sinatuko ditu eta ikastegiak argitara emango ditu, kalifikazioak berrikusteko epea amaitu eta, gehien delarik, hiru eguneko epearen barruan. Irakasleek

misma, o en su caso, en la administración, y su composición se hará pública en el primer trimestre de cada curso académico.

e) En estos supuestos tanto las calificaciones, que se publicarán en el tablón de anuncios del Departamento, como las Actas, irán firmadas por el profesor o profesora de cada grupo o grupos, y por quien ostente la presidencia del Tribunal Calificador.

*Artículo 48.–* Los Tribunales de 5.ª, 6.ª y convocatoria excepcional serán nombrados en el primer trimestre de cada curso académico por la Junta de Centro, oídos los Departamentos. Estarán constituidos por tres docentes del Departamento, prioritariamente del área de conocimiento a la que está adscrita la asignatura, y teniendo en consideración el carácter bilingüe de la misma, los cuales tendrán en cuenta, además de la prueba realizada, el historial académico y demás circunstancias que, como estudiante, presente la persona afectada. Estos tribunales deberán hacerse públicos en el primer trimestre de cada año académico.

A las resoluciones de estos tribunales les serán de aplicación aquellas previsiones vigentes respecto al procedimiento de reclamación establecido en el artículo 49.2. En este caso la revisión del examen se realizará por el tribunal.

*Artículo 49.–* 1.– Cada Departamento deberá nombrar, al menos, una comisión de tres docentes y un miembro del colectivo de estudiantes por cada área de conocimiento y sus suplentes correspondientes a los efectos de atender las reclamaciones sobre correcciones y revisiones de exámenes finales. La persona que presida la referida comisión deberá ser miembro del profesorado permanente. La estudiante o el estudiante será determinado mediante propuesta vinculante del Consejo de Estudiantes donde el Departamento tenga la sede o, en su caso, por el Consejo de Estudiantes de la Universidad oídos los Consejos de Centro. En caso de que proceda realizar una nueva calificación ésta será realizada por el profesorado de la comisión mediante la votación o cálculo de la nota media correspondiente.

2.– Se respetará el siguiente procedimiento:

a) Publicación de las calificaciones. Las calificaciones se publicarán con indicación del lugar, fecha y hora de la revisión de los exámenes que se realizará en un plazo comprendido entre un mínimo de dos días y un máximo de ocho días hábiles. El estudiante o la estudiante tendrá derecho a estar presente durante la revisión de su examen. En caso de no poder asistir a la revisión el día fijado por razones académicas o por motivos personales graves debidamente justificados, tendrá derecho a una nueva fecha que deberá acordar con el miembro del profesorado dentro de los límites antes señalados. Finalizado el plazo de revisión, éste procederá a firmar las Actas oficiales que serán hechas públicas por el Centro en un plazo máximo de tres días hábiles

hiru eguneko epe horren barruan sinatu beharko dituzte aktak.

b) Erreklamazioa: ikaslea ados ez badago kalifikazioarekin, kexa idatzia aurkeztu ahal izango dio saileko zuzendariari bost egun balioduneko epean, aktak argitaratu ziren egunetik hasita.

c) Erreklamazioaren ebazpena. Batzordeak erreklamazioa aztertuko du eta, taldeko irakaslearen iritzia entzun ondoren eta egoki deritzen ekintzak burutu ostean, ikasleari entzun eta gero, erabaki arrazoitua hartuko du erreklamazioaz. Erabakia gehienez ere zortzi egun balioduneko epean hartu beharko du batzordeak, erreklamazioa jarri zen egunetik zenbatzen hasita. Ikasleari eta taldeko irakasleari eta ikastegiko Idazkaritzari jakinaraziko zaie erabakia, jakinaren gainean egon daitezen eta behar diren ondorioak sor ditzan eta, hala behar izanez gero, akta aldatuko da, ikastegiko idazkariaren diligentziaren bidez.

d) Azterketa berriro egitea. Ikasleak azterketa berriro egiteko eskubidea izango du honakoetan:

1) Azterketa edo azterketaren zati bat programan ageri ez ziren gaien ingurukoa izan bada edo, programan agertu arren, irakasleak landu ez bazuen gai hori.

2) Arrazoi oso bereziak, egora fisiko edo bestelakoak direla-eta azterketa ezin izan badu egin. Horrelakoetan, irakasleak, atxikita dagoen sailaren oniritziarekin eta ikastegiarekin batera, arrazoiak aztertu ondoren, azterketarako beste egun bat jarri ahal izango du, beste neurri berezirik hartu ezean.

3) Irakasleak venia docendirik ez badu.

4) Azterketa egin aurretik ikasleek ezagutzen ez zuten ebaluazio-sistema erabili badu irakasleak.

5) Ikastegiko Erreklamazio Batzordeak hala erabakitzen duenean, irizpide akademikoak kontuan hartuta (hau da, titulazioaren testuingurua eta tartean dauden irakasgaiak) arrazoiz espero zitekeena baino askoz ere suspentso kopuru handiagoa egon denean.

e) Bigarren erreklamazioa. Ikaslea ados ez badago, erreklamazio idatzia aurkeztu ahal izango dio ikastegiko dekano edo zuzendariari bost laneguneko epean.

f) Ikastegiko Batzarraren batzorde batek, hamar eguneko epean gehienez ere eta behar diren txostenak eskatu ondoren, kasua aztertuko du, eta erabaki arrazoi-

desde la finalización del plazo de la revisión de las calificaciones. El profesorado dispondrá de dicho plazo de tres días hábiles para la firma de las correspondientes actas.

b) Reclamación. Si la persona reclamante no quedara conforme, podrá presentar por escrito reclamación al director o directora del departamento en el plazo de cinco días hábiles, a partir de la fecha de publicación de las Actas.

c) Resolución de la reclamación. La comisión nombrada al efecto estudiará la reclamación presentada y previo informe del profesor o de la profesora del grupo, tras las actuaciones que considere oportunas, y con audiencia a la persona implicada, resolverá razonadamente sobre la reclamación en el plazo máximo de ocho días hábiles desde que ésta fue presentada, dando traslado al estudiante o a la estudiante, al profesor o profesora del grupo y al Secretario o Secretaria del Centro, para su conocimiento y efectos, debiendo procederse, en su caso, a la rectificación del Acta correspondiente, mediante diligencia del Secretario, Secretaria del Centro.

d) Realización de un nuevo examen. Cada estudiante tendrá derecho a la realización de un nuevo examen en los siguientes supuestos:

1) Una parte o todo el examen se refirió a materias no contenidas en el programa, o estando recogidas en el programa no fueron tratadas por los profesores o profesoras correspondientes.

2) Supuestos de fuerza mayor, condiciones físicas o de otro tipo que, afectando al conjunto del alumnado, condicionen el desarrollo normal del examen. En estos casos, el docente, mediando la aprobación del Departamento al que se encuentre adscrito, en coordinación con el centro, podrá señalar, previa ponderación de las circunstancias acaecidas, una fecha distinta para la realización de la prueba, ello al margen de posibles medidas de carácter excepcional que se puedan adoptar.

3) Falta de venia docendi en el miembro del profesorado.

4) Utilización de sistema de evaluación desconocido antes del examen.

5) Siempre y cuando la Comisión de Reclamaciones del Centro así lo determine por haber detectado unos resultados anormales en el índice del conjunto de estudiantes suspendidos que no se corresponda con aquellos que razonablemente pudieran producirse teniendo en cuenta criterios académicos; a saber, el contexto de la titulación y las asignaturas implicadas.

e) Segunda reclamación. Si la persona reclamante no queda conforme, podrá presentar, por escrito, reclamación al Decano, Decana o Director, Directora del Centro en el plazo de cinco días.

f) Una comisión delegada de la Junta del Centro, en el plazo máximo de diez días, y tras recabar los informes pertinentes, estudiará el caso, emitiendo resolución

tua hartuko du. Ikasleari eta saileko zuzendariari jakinaraziko zaie erabakia, eta zuzendariak, berriz, taldeko irakasleari eta ikastegiko idazkariari jakinaraziko die, jakinaren gainean egon daitezen eta behar diren ondorioak sor ditzan. Hala behar izanez gero, akta aldatuko da, ikastegiko idazkariaren diligentziaren bidez.

g) Ikasleak, hilabeteko epean, gorako errekurtsoa jarri ahal izango du errektorearen aurrean. Honek, sailean hartarako osaturiko batzordearen eta Ikastegiko Batzarraren txostenak ikusirik eta beharko liratekeen aholkuak jasorik, erabakia emango du, honela administrazio bideari amaiera emanik.

3.– Ikasketa-plan berrien arabera irakasgaitzat hartzen diren karrera-amaierako proiektuen kasuan berrikuspena 49.2. artikuluan zehaztutako prozedurari jarraiki egingo da.

Edozelan ere, karrera-amaierako proiektuak aztertzen dituzten epaimahaia sail bateko baino gehiagoko kideek osatzen dutenez, berrikuspena epaimahaiak egingo du. Erreklamazioa, lehendabizi, Ikastegi Batzarraren batzorde eskudunari aurkeztuko zaio.

*50. artikulua.*– 1.– Deialdi ofizial bakoitzeko azterketen egutegia Ikastegiko Batzarrak onartuko du; proposamena zuzendaritzak edo dekanotzak egingo du, sailen eta ikastegiko Ikasleen Kontseiluaren iritzia entzun ondoren, Gobernu Kontseiluak ikasturte bakoitzerako ezarritako muga orokorren barruan. Egutegi honetan, azterketa bakoitza egiteko data, ordua eta ikasgela ageriko dira, eta egutegi hau azterketak hasi baino, gutxienez, hilabete bat lehenago argitaratu beharko da.

Azterketen datak arrazoi justifikaturen bat dela-eta aldatzeko proposamena sailak egingo du, eta dekanoak/zuzendariak onartuko du, Ikasleen Kontseiluaren iritzia entzun ondoren. Aldaketak berehala argitaratuko dira ikastegiko iragarki oholean, betiere aldatutako azterketa egin baino 15 egun lehenago, gutxien dela.

2.– Hala eskatzen duen ikasleak azterketara joan izanaren ziurtagiria jasoko du.

3.– Enborreko edo nahitaezko irakasgai biren azterketen datak batera gertatuz gero, irakasgairen bat errepikatzen ari diren ikasleei kalterik ez egiteko, bien artean maila goragokoa den irakasgaiko irakasleek jarriko dute data berria.

4.– Enborreko edo nahitaezko irakasgai baten eta hautazko irakasgai baten azterketen datak batera gertatuz gero, hautazko irakasgaiaren eguna aldatu beharko da.

5.– Azterketa bat baino gehiago egun berean direnean, ikasleak azterketa eguna baino gutxienez 15 egun

razonada que será remitida a la persona afectada y al Director o Directora del departamento quien, a su vez, dará traslado al miembro del profesorado del grupo y al Secretario o Secretaria del Centro, para su conocimiento y efectos, debiéndose proceder, en su caso, a la rectificación del acta correspondiente, mediante diligencia del Secretario o Secretaria del Centro.

g) La persona afectada podrá interponer en el plazo de un mes, recurso administrativo de alzada ante el Rector, Rectora quien, a la vista de los informes emitidos por la comisión al efecto del Departamento, y por la Junta de Centro, y tras recabar los asesoramientos pertinentes, emitirá la resolución que pondrá fin a la vía administrativa.

3.– Conforme a los nuevos planes de estudio a los Proyectos de Fin de Carrera que reciban el tratamiento de asignatura, les serán de aplicación las previsiones vigentes en cuanto al procedimiento de revisión establecido en el artículo 49.2.

No obstante, resultando que la composición de los tribunales que estudian el Proyecto de Fin de Carrera es supradepartamental, la revisión del mismo se realizará por el tribunal y la primera instancia a efectos de presentar reclamación será la Comisión delegada de la Junta de Centro.

***Artículo 50.***– 1.– El calendario de exámenes de cada convocatoria oficial será aprobado por la Junta de Centro a propuesta de la Dirección/Decanato del Centro, oídos los Departamentos y el Consejo de Estudiantes del Centro, dentro de los límites establecidos por el Consejo de Gobierno con carácter general para cada curso. En dicho calendario figurará la fecha, hora y aula de celebración de cada examen y deberá ser hecho público al menos con un mes de antelación al comienzo de los exámenes.

Las modificaciones por causa justificada de las fechas de exámenes serán aprobadas por el Decanato/Dirección oído el Consejo de Estudiantes del Centro a propuesta del Departamento y se harán públicas inmediatamente en el tablón de anuncios del Centro y siempre con una antelación mínima de 15 días respecto a la fecha de realización del examen modificado.

2.– Cada estudiante que lo solicite percibirá una certificación de su asistencia al examen.

3.– En el caso de coincidencia de fechas de exámenes entre dos asignaturas troncales u obligatorias, para no perjudicar a quienes repiten alguna asignatura, será el profesorado de la asignatura troncal u obligatoria del curso superior quienes fijarán una nueva fecha.

4.– Si la coincidencia de fechas de exámenes se da entre una asignatura troncal u obligatoria y otra optativa, se deberá cambiar la fecha de la asignatura optativa en todo caso.

5.– En caso de coincidencia de la fecha de exámenes, el estudiante o la estudiante deberá solicitar al pro-

lehenago eskatu beharko dio irakasleari data aldatzeko.

6.— Bi azterketa data berean jarri direla esango dugu baldin eta egun berean eta txanda berean (hau da, goizez edo arratsaldez) jarri badira. Txanda aldaketa 14:00etan da.

*51. artikulua*.– 1.— Praktiken oroitidazkiak eta lanak emateko data ikasleekin adostuko da eta aurrekoak proposatzerakoan zehaztuko. Edozelan ere, lanok ebaluatzeko ezarritako datak behar besteko aurretiaz jarri beharko dira, ikasleak berme guztiekin erabili ahal izan dezan azterketa egiteko eskubidea.

2.— Praktiken lanak eta memoriak ikasleei itzuliko zaizkie, eurek eskatuz gero, kalifikazioa jarri eta hurrengo bi hilabeteetan. Lan hauek zatiz edo osorik argitaratu edo erreproduzitzeko, edota beste edozein helburutarako erabiltzeko, egile(ar)en baimen agerikoa beharko da.

3.— Ikastegi bakoitzak bere iragarki oholean jarriko du karrera amaierako proiektu edo lanak egiteko indarrean daukan arautegia.

*52. artikulua*.– Azterketa egin ondoren, saileko irakasleek ariketa praktikoen eta problemen emaitzak eta ebazpen-metodoak jakinaraziko ditu, ikasleek ahalik eta etekin handiena atera dezaten egindako probetatik.

*53. artikulua*.– 1.— Ikasketen egitura, garapen edo ebaluazioaren inguruan jar litezkeen salaketak zuzendari edo dekanoen aurrean aurkeztuko dira eta haiek organo eskudunei bideratuko dizkiete, hartu beharreko neurriak har ditzaten.

2.— Akademia Antolakuntza eta Koordinazioko Errektoreordetzak modu sistematikoan aztertuko ditu UPV/EHUko titulazioetako irakasgaietan ikasleek lortutako emaitza akademikoak. Horrela, kalifikazioak ikusita, behar diren neurriak hartuko dira ikasleen emaitzak emaitza orokorretatik desbideratzen direnean. UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluari hartzen diren neurrien berri emango zaio.

3.— Zuzendari edo dekanoaren eta ikastegiko batzarraren erabakien aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio errektoreari eta haren erabakiek agortu egingo dute administrazio bidea.

*54. artikulua*.– Ebaluazio probak gorde egin beharko dira, gutxienez, kalifikazioak behin betikoak ez diren artean. Ikastegiak ezarriko ditu proba horiek gordetzeari buruzko arauak.

fesor o a la profesora el cambio de fecha con una antelación mínima de 15 días respecto a la fecha de realización del examen.

6.— Se entenderá que se produce coincidencia entre dos exámenes cuando ambos tengan lugar en el mismo día y en el mismo turno de mañana o de tarde. El cambio de turno se produce a las 14:00 h.

*Artículo 51*.– 1. La fecha de entrega de los trabajos y de las memorias de prácticas será concertada con los estudiantes y especificada en el momento de su propuesta. En todo caso, en relación a las fechas establecidas para la evaluación de los mismos, se deberá establecer con la suficiente antelación a fin de satisfacer en su caso el derecho del estudiante a poder presentarse al examen con las debidas garantías.

2.— Los trabajos y memorias de prácticas serán devueltos a los estudiantes, las estudiantes firmantes, a petición propia, y a partir de los dos meses de su calificación. La publicación o reproducción total o parcial de los mismos, o su utilización para cualquier otro fin deberá contar con la autorización expresa de su(s) autor(es), autora(s).

3.— La normativa vigente en cada Centro para la realización de los proyectos o ejercicios final de carrera será expuesta en el tablón de anuncios del Centro.

*Artículo 52*.– Tras la realización de cada examen serán dados a conocer, por el profesorado del Departamento, los resultados y métodos de resolución de los ejercicios prácticos y de problemas, con el fin de que el alumnado extraigan el máximo rendimiento a las pruebas realizadas.

*Artículo 53*.– 1.— Ante el Director, Directora o Decano, Decana correspondiente se formularán las denuncias que se refieran a supuestas anomalías en la estructuración, desarrollo o evaluación de las enseñanzas, los cuales darán traslado a los órganos competentes, tomando las medidas cautelares que procedan.

2.— De forma sistemática, desde el Vicerrectorado de Organización Académica y Coordinación se analizarán los resultados académicos obtenidos por el alumnado en las distintas asignaturas de las titulaciones de la UPV/EHU. Así, a la vista de estas calificaciones se adoptarán las medidas oportunas en los casos en los que los aludidos resultados supongan una desviación de los resultados generales. De las medidas adoptadas será debidamente informado el Consejo de Estudiantes de la UPV/EHU.

3.— Contra las resoluciones de los Directores, Directoras o Decanos, Decanas y de las Juntas de Centro cabe recurso de alzada ante el Rector, Rectora, cuyas resoluciones pondrán fin a la vía administrativa.

*Artículo 54*.– Las pruebas de evaluación deberán conservarse, como mínimo hasta que las calificaciones sean firmes. Los Centros establecerán el régimen de conservación de las mismas.

*55. artikulua.–* Abuztua baliorik gabea izango da epeak zenbatzeko.

Epaimahai bereziak.

*56. artikulua.–* 1.– UPV/EHUko ikastegi guztiek izango dituzte epaimahai bereziak. Epaimahaiburua ikastegiko dekanoa edo zuzendaria izango da, baina dekanotza edo zuzendaritza taldeko edozein kideri eskuordetu ahal izango dio eginkizun hori.

2.– Epaimahaiaren buruaz gain, epaimahaiko idazkaria egongo da, hitz egin ahal izango duena baina ez botoa eman. Ikastegiko idazkariak hartuko du bere gain eginkizun hori. Epaimahaian, epaimahaiburu eta idazkariarekin batera, ikastegiko sei irakaslek jardungo dute. Irakasle horiek jakintza-arlo desberdinetakoak izango dira, eta Ikastegi Batzarrak izendatuko ditu ikasturte bakoitzeko lehen hiruhilekoan. Epaimahaiaren bileretara Ikasleen Kontseiluak izendaturiko ikasle bat joango da, hitz egin ahal izango duena baina ez botorik eman. Jakintza-arlo jakin bateko ordezkariak joan ezin badu, beste arlo bateko irakasle batek ordezkatu ahalko du baina ikastegiko dekano edo zuzendariari egoera honen berri eman beharko zaio epaimahaiaren aktari atxikitako agiri baten bitartez.

3.– Titulazio bat baino gehiago irakasten duten ikastegiek epaimahai bana eratu ahal izango dute ikasketa bakoitzerako, baldin eta Ikastegiko Batzarrak hori erabakitzen badu.

4.– Gobernu Kontseiluak ere izango du epaimahai berezia. Epaimahaiburua Ikasleen errektoreordea izango da, errektoreak eginkizunak eskuordetuta. Epaimahaia, bestalde, Gobernu Kontseiluak berak ikasturte bakoitzeko lehen hiruhilekoan aukeratuko dituen bost irakaslek osatuko dute, bat arlo zientifiko bakoitzeko.

Epaimahai Bereziak ikasturtez ikasturte irizpide berberei eusten diela bermatzeko, 2007-2008 ikasturtetik aurrera, kideetako bik epaimahaian jarraituko dute hurrengo ikasturtean. Gainerakoek ikasturtea amaitzean utziko dute kargua.

Akademia Gestiorako Zerbitzuko teknikari bat izango da epaimahaiko idazkaria, eta hitz egin ahal izango du baina ez botoa eman. Gobernu Kontseiluko Epaimahai Bereziko kideren batek bere ikastegiko epaimahai berezian jardun badu, ordezko bat izendatuko da. Epaimahaiaren bileretara Ikasleen Kontseiluak izendaturiko ikasle bat joango da, hitz egin ahal izango duena baina ez botorik eman.

5.– Epaimahai horrek ebatziko ditu ikastegietako epaimahai berezien erabakien kontra jarritako erreklamazioak.

*57. artikulua.–* 1.– Ikasturte bakoitzeko otsail eta ikaileko deialdien ondoren eskatu beharko dute ikasleek

*Artículo 55.–* El mes de agosto se considerará inhábil a los efectos de cómputo de plazos.

Evaluación por compensación.

*Artículo 56.–* 1.– Todos los Centros de la UPV/EHU contarán con un Tribunal de Compensación presidido por el Decano, Decana o Director, Directora del Centro, quien podrá delegar en cualquier integrante del equipo decanal o dirección.

2.– Además del Presidente, Presidenta, hará las funciones de Secretario, Secretaria del Tribunal con voz pero sin voto, el Secretario, Secretaria del Centro. Junto con el Presidente o la Presidenta y el Secretario o la Secretaria, el Tribunal estará integrado por seis profesores, profesoras del Centro que pertenezcan a áreas de conocimiento diferentes y que serán nombrados por la Junta de Centro, en el primer trimestre de cada curso académico. A las reuniones del tribunal acudirá un alumno o alumna, nombrado por el Consejo de Estudiantes del Centro, con voz pero sin voto. En el caso de que no pueda asistir el representante de una determinada área de conocimiento, podrá actuar en su sustitución un docente de otra área, debiendo hacerse constar esta circunstancia por el Decano/Director del centro mediante certificación anexa al acta del tribunal.

3.– En el caso de que el Centro tenga más de una titulación, si la Junta de Centro así lo decide, podrá establecerse un tribunal distinto para cada una de las titulaciones.

4.– Igualmente, el Consejo de Gobierno de la UPV/EHU contará con un Tribunal de Compensación presidido por el Vicerrector, Vicerrectora de Alumnado por delegación del Rector, Rectora y compuesta por cinco miembros del profesorado, uno por cada campo científico, propuestos y ratificados en el propio Consejo en el primer trimestre de cada curso académico.

Con el fin de asegurar la continuidad en los criterios adoptados por el Tribunal de Compensación, a partir del curso 2007-2008, dos de sus miembros continuarán ejerciendo sus funciones durante el siguiente curso, cesando los restantes al final del mismo.

Un técnico o una técnica del Servicio de Gestión Académica actuará, con voz pero sin voto, como Secretario, Secretaria de este tribunal. En caso de que alguno de los miembros del Tribunal de Compensación del Consejo de Gobierno hubiera participado en el Tribunal de Compensación de su Centro, deberá ser nombrado un sustituto. A las reuniones de este tribunal acudirá un miembro del colectivo de estudiantes, nombrado por el Consejo de Estudiantes, con voz pero sin voto.

5.– Dicho tribunal resolverá las reclamaciones presentadas contra las resoluciones de los Tribunales de Compensación de los Centros.

*Artículo 57.–* 1.– Cada estudiante podrá solicitar compensación una vez finalizada la convocatoria de fe-

ebaluazio berezia. Azken eguna martxoaren 15a izango da lehen kasuan, eta urriaren 15a bigarrenean. Ikastegietako epaimahai bereziek martxoaren edo urriaren 31 baino lehen hartu beharko dute erabakia, hurrenez hurren.

2.– Erreklamazioak urte bakoitzeko apirilaren edo azaroaren 10a baino lehen (deialdiaren arabera) aurkeztu beharko zaizkio Gobernu Kontseiluko epaimahai bereziari, eta hil beraren 25a baino lehen ebatziko dira. Erreklamazioa behin ebatzita, eta ikaslea ados ez badago, gorako errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio errektoreari. Hilabeteko epea izango du horretarako, Gobernu Kontseiluko Epaimahai Bereziak erabakia argitaratzen duenetik hasita.

*58. artikulua.*– 1.– Irakasgaiak edo kredituak ebaluazio bereziaren bidez gainditzeko, ikasleek matrikulatuta egon behar dute. Matrikulari lotutako bi deialdietako edozein erabili ahal izango dute.

2.– Ikasleek ebaluazio berezia eskatu ahal izango dute, egokitzat hartzen dituzten alegazioetan oinarrituta —baldin eta ez badituzte agortu irakasgaiaren deialdi guztiak— honako kasuotan:

Plan berritu gabeak (kreditutan egituratu gabeak).

a) Urte osoko irakasgai bat edo lauhileko bi irakasgai diploma, arkitektura tekniko eta ingeniaritza teknikoetan, baldin eta urte osoko irakasgai bi edo lauhileko lau baino ez baditu gainditzeke ikasleak. Urte osoko irakasgai bi edo lauhileko lau irakasgai lizentzia, ingeniaritza edo arkitekturan, baldin eta urte osoko hiru irakasgai edo lauhileko sei irakasgai baino ez baditu gainditzeke ikasleak. Urte osoko irakasgai bat lauhileko biren parekoa da, zenbaketarako.

b) Ebaluazio berezia eskatu duten ikasleek hiru deialdi behintzat erabilita izan beharko dituzte, eta horietako batean lortutako nota 3 izan beharko da gutxienez.

c) Inola ere ezingo da eskatu ebaluazio berezia karrera amaierako proiektu edo lanerako.

Plan berrituak (kreditutan egituratuak).

a) Ikasketetako kreditu guztien % 6ri dagozkion irakasgaien ebaluazio berezia eskatu ahal izango du ikasleak, gehienera, baldin eta egin beharreko kredituen % 85 gainditu badu.

b) Ebaluazio berezia eskatu duten ikasleek hiru deialdi behintzat erabilita izan beharko dituzte, eta horietako batean lortutako nota 3 izan beharko da gutxienez.

c) Inola ere ezingo da eskatu ebaluazio berezia karrera amaierako proiektu edo lanerako eta practicumerako.

brero y de septiembre de cada curso; las fechas límites serán el 15 de marzo en el primer caso, y el 15 de octubre en el segundo. El Tribunal de Compensación del Centro deberá resolver antes del 31 de marzo o de octubre, respectivamente.

2.– Las reclamaciones al Tribunal de Compensación del Consejo de Gobierno se realizarán antes del 10 de abril o de noviembre de cada año (según la convocatoria), y deberán ser resueltas antes del 25 del mismo mes. Una vez resuelta esta reclamación, y si el alumno, la alumna no quedara conforme, podrá presentar recurso de alzada ante el Rector, Rectora en el plazo de un mes a partir de la notificación de la resolución del Tribunal de Compensación del Consejo de Gobierno.

*Artículo 58.*– 1.– Para solicitar la aprobación por compensación, los alumnos, las alumnas deberán haberse matriculado y podrán utilizar cualquiera de las dos convocatorias a las que les da derecho dicha matrícula.

2.– Se podrá solicitar compensación, argumentada con las alegaciones que se consideren oportunas, siempre que no se hayan agotado las convocatorias de la asignatura correspondiente, en los siguientes casos:

Planes no renovados (no estructurados en créditos).

a) De una asignatura anual o de hasta dos cuatrimestrales en las titulaciones de diplomatura, arquitectura técnica, ingeniería técnica, siempre que sólo le queden por superar un máximo de dos asignaturas anuales o cuatro cuatrimestrales; de hasta dos asignaturas anuales o de hasta cuatro cuatrimestrales en las titulaciones de licenciatura, ingeniería o arquitectura, siempre que sólo le queden por superar un máximo de tres asignaturas anuales o seis cuatrimestrales. A efectos de cómputo, una asignatura anual equivaldrá a 2 cuatrimestrales.

b) Es necesario que la persona solicitante se haya presentado en las asignaturas para las que solicita compensación, al menos, en tres convocatorias, y que la nota obtenida en alguna de ellas, al menos, sea de 3.

c) En ningún caso se podrá solicitar compensación del proyecto/trabajo fin de carrera.

Planes renovados (estructurados en créditos).

a) Se podrán compensar asignaturas por un valor máximo de un 6% de los créditos totales de la titulación siempre que se haya superado el 85% de los créditos.

b) La persona solicitante se habrá presentado, en las asignaturas para las que solicita compensación, al menos, en 3 convocatorias, y que la nota obtenida en alguna de ellas, al menos, sea de 3.

c) En ningún caso se podrá solicitar compensación del proyecto/trabajo fin de carrera y del practicum.

*59. artikulua.*– 1.– Epaimahai bereziak balioz eratzeko beharrezkoa izango da kideen erdiak bertan egotea. Dena dela, epaimahaiburua eta idazkaria, edo ordezkoak, beti egon beharko dira.

2.– Erabakia ez bada hartu aho batez eta berdinketa gertatu bada, epaimahaiburuaren kalitate-botoak izango du lehentasuna.

3.– Idazkariak bileraren akta egingo du. Kasu bakoitzean hartutako erabakia jasoko du aktan, hau da, eskaera onartu den ala ez, behar bezala arrazoituta. Akta publikoa izango da.

